

EZKERRALDEKO GAZTEEN HIZKUNTZA JARRERAK

EHUko Hizkuntza Plangintza graduondoko sakontze egitasmoa

Egilea: Olatz Zuazo Azpeitia

Tutorea: Nekane Larrañaga

2018/2019

AURKIBIDEA

1. Sarrera

2. Somorrostroko haraneko edo Ezkerraldeko historia

3. Toponimia - Paiazaia linguistikoa

3.1. Sestao

3.1.1. Sestaoko historia

3.1.2. Sestaoko euskal toponimia

3.2. Portugalete

3.2.1. Portugaleteko historia

3.2.2. Portugaleteko euskal toponimia

3.3. Santurtzi

3.3.1. Santurtziko historia

3.3.2. Santurtziko euskal toponimia

4. Ikerketa soziolinguistikoa

4.1. Euskararekiko diskurtsoak gizartean

4.2. Ezkerraldeko hizkuntza ekologia

4.3. Ezkerraldeko hiztun aktiboen ikuspegi psikologikoa

4.4. Ezkerraldeko tribuen berbak eta hizkuntza iritziak

4.5. Hizkuntza jarrerak, motibazioa, identitateak eta aurreiritziak

4.6. Lanaren metodologia

4.7. Ikerketa kuantitatiboa eta kualitatiboa

5. Ondorioak

6. Bibliografia

I. ERANSKINA: Galdetegia

II. ERANSKINA: Ikerketa soziolinguistikoaren erantzun oro

1. SARRERA

Gazteen iritziek eragina handia daukate beren hizkuntza erabileran, eta honi buruzko hausnarketa egingo dut jarrera hauek indartzeko, nire lana Ezkerraldeko gazteen hizkuntza-jarreretan datzalako, Sestaon, Portugaleten eta Santurtzin, hain zuzen ere.


Ezkerraldea **Jon Aizpurua**¹ esaten duenez, **1. gune soziolinguistikoa** da, hau da, euskaraz bizi ez den gunea da. Euskararen etorkizuna 3. guneetan dago, Lea-Artibain, Durangon eta Gernikan, hain zuzen ere, eskualde hauetan pisu demografiko handia dagoelako, leku hauetan zerbitzu eta aukera asko eskaintzen direlako, lan-mugimendu handiko guneak direlako eta berez, gune euskaldunak direlako. Beraz, lanagatik horra mugituko diren euskaldunak edo horra ezkonduko diren euskaldunak euskaraz bizi ahal izango dira, eta erdaldunak euskararen uhin horretan sartuko dira erraz. Tamalez, gurea kontrako adibidea da.

Hemen %57k euskaraz daki, nahiz eta gero ez erabili kalean. Hemengo errealitateak edo paisaia linguistikoak diosku euskarak gutxirako balio duela, gaztelania dela jaun eta jabe. Inplizituki bidaltzen zaien mezua horixe da: hemen gaztelaniaz ondo jakitea ezinbestekoa da. Euskara anekdota hutsa delako.

Ez gara kontziente gure inguru linguistiko honek duen eraginaz, baina dena blaitzen duen geruza fina da, edonon sartzen dena, harea-aleak bezala hondartzara goazenean. Eta harea legez, zaila da kentzea eragiten duena.

EUSTATen arabera Ezkerraldeko etorkin kopurua handitzen ari da urtez urte, %9 inguru, (iturria: http://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/sestao.html) eta hirugarren sozializazioak garrantzi handia dauka gure egunerokotasunean. Etorkinak/etorri berriak euskarara erakartzea izango da gure erronketako bat, eta etorkizuneko erabileran ere eragina izan dezakeena:

¹ Jon Aizpurua; Euskararen erabilera eta erabileran eragiten duten faktore nagusiak. 2018

2. irudia. Atzerriko biztanleriaren bilakaera. EAE, 2001-2011

EAEko etorkin guztien %48,7 Bizkaian bizi dira, Bilbon eta Ezkerraldean hain zuzen ere. Izan ere, 2001etik etorkinen ehunekoa hazi da EH osoan, % 1,3 izatetik % 6,5 izatera pasatu da.

Total	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Álava	4.603	4.947	6.108	7.850	10.573	13.052	14.622	17.745	19.717	22.483	26.311	29.826	32.244	33.102	35.161	33.615	33.451	34.037	33.894	35.580	37.381	39.790
Bizkaia	16.488	17.112	19.577	23.545	29.435	34.857	40.134	47.679	55.516	62.797	72.076	80.395	83.819	88.389	92.427	92.078	89.206	89.253	91.685	95.548	100.640	108.302
Gipuzkoa	5.243	6.964	9.458	12.428	15.860	19.620	23.450	28.604	32.861	36.916	44.097	49.416	51.319	53.548	56.184	57.590	59.060	60.907	63.017	65.461	68.509	73.321
EAE	26.334	29.023	35.143	43.823	55.868	67.529	78.206	94.028	108.094	122.196	142.484	159.637	167.382	175.039	183.772	183.283	181.717	184.197	188.596	196.589	206.530	221.418

(ikuspegi.eus - Inmigrazioaren euskal behatokia 2019)

Goiko taulan ikusten denez, 2011tik aurrera etorkinen ehunekoa gero eta handiagoa da, EAEko biztanleriaren % 10 izanik eta gehiena Bizkaian kokaturik.

Ezagun dugu bakoitzak bere kabuz erabaki dezakeena hizkuntz hautua egiteko gonbite hori ikusgai jartzea eta gainera era positibo batean egin daitekeena: *Zuk nahi baduzu, euskaraz primeran; euskaraz atsegin handiz* eta gisakoak. Eta marka linguistikoa norbanakoaren mailan koka dezakegu. Gainera, gaitasun erlatiboarekin ere lotu daiteke, Ezkerraldean berpiztu gura duguna. Horrelaxe aipatzen da **Martínez de Lunaren** testuan ² : *“nagusiki erdaraz funtzionatzen duen gizarte batean nekeza da euskarari leiala izatea”* eta *“hiztun elebidunari erraztasunak eman behar zaizkio hainbat egoeratan euskaraz egin dezan.*

² Martínez de Luna: Etorkizuna aurreikusten, Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara, Lasarte-Oria, 2000

Erraztasun horiek arnasguneak izan daitezke, Ezkerraldean nekez lortzen duguna, hain zuzen ere.

Euskararen arnasguneetan euskaraz ezarri daitezke harremanak bestelako egoera askotan baino errazago (bideak teorian arinagoa beharko luke izan "hemen", nahiz eta seguru asko ñabardurak egin behar diren bestelako baldintzak ere jokoan baitaude). Eta herritarrek eta herriek halako arnasguneak izatea oso garrantzitsua da; bai eragin aldetik (Ezkerraldearen irudiari eragin liezaioke eta abar), eta baita ere herritarrek "euskaran eta euskaraz sozializatzen laguntzeko" guneak izan ditzaten.

Izan ere, hemengo pertsona batek nahiz eta euskaraz jakin eta motibatuta egon, bere ingurua erdalduna bada oso aukera gutxi ditu euskara erabiltzeko. **Cooper**rek dioenez ³, nahiz eta gaitasuna eta motibazioa izan, ez daukala zertan hizkuntza hori erabili: "La normalización lingüística tiene más probabilidades de éxito en cuanto a las actitudes que en cuanto a los comportamientos" (Cooper, 1997).

Beraz, arnasgune batean euskara erabiltzeko aukera gehiago ditu. Horregatik, arnasgune geografikoak garrantzi handi dauka eta gune erdaldunetan arnasgune funtzionalak sortzeari ekiten diogu. Horrela, nahiz eta gune erdaldunetan euskaraz hitz egiteko aukera gutxiago izan, arnasgune funtzionalik sortuz gero, gune horietan behintzat erabili ahal izango genuke.

2. SOMORROSTROKO HARENEKO EDO EZKERRALDEKO HISTORIA

Ezkerraldea Bilbo handiko azpi-eskualdea da, izenak berak dioenez, Ibaizabalen ezkerreko ibaiertzeko esparrua hartzen duena. **Bilboko ezkerraldea** edo **Somorrostroko harana** izenak ere hartzen ditu, azken hau forma historikoa delarik. Historikoki, hala ere, Enkarterriko azpi-eskualdea izan da.

XX. mendean, bere ezaugarri historiko nagusia industriarekin lotutakoa izan da.

Burdina lantzetik Labe Garaietara, meatzaritza antzinetatik Euskal Herriaren ezaugarri izan da. Jarduera honek XIV. mendearen hasieratik hazkunde demografiko eta ekonomikoa sortarazi zuen, XVI. mendera arte luzatu zena. XVIII. mendean Euskal Herriak, batez ere, siderurgia-industriari esker, gorakada ekonomiko berria jasan zuen.

XIX. mendearen erdialdean, Bizkaiko Nerbioi ibaiko ezkerraldean hainbat siderurgia-enpresa eraiki zen, enpresok 1901.ean batu egingo ziren eta "Altos Hornos de Vizcaya" ("Bizkaiko Labe Garaiak") enpresa sortuko zen. XX. mendearen hasieran "Altos Hornos de Vizcaya" Espainiako industriarik

³ COOPER, Robert L; FISHMAN, Joshua. 1974. "Language attitudes, 1". *International Journal of the Sociology of Language* 3.

COOPER, Robert L. 1997. *La planificación lingüística y el cambio social*. Cambridge: Cambridge University Press.

handiena zen, espainiar siderurgia-sektoreko enpresa hegemoniko eta aitzindaria izanik.

Euskal Herriko industrializazio prozesu sakonak, Katalunia ezik, estatuko beste tokietan ez hain bizia edo nulua zena, Bizkaian eta Gipuzkoan bere meatzetako burdinaz altzairua egitea ekarri zuen, eta altzairuaz euskaldunek itsasontziak, bizikletak, armak, makinak eta trenbideak egin zituzten.

Finantza-gaitasuna garatuz, bilbotarrek bereziki, ehundegiak, paper-lantegiak eta era guztietako enpresak finantzatuko zituzten bankoak antolatu zituzten, honek, berriz ere, Katalunia ezik estatuko gainontzeko lurraldeetan parekorik izango ez zuen burgesia industrialia garatuz.



Nerbioi ibaiaren ezker aldean zeuden bizkaitar meategi eta siderurgia-industrietan lan egiten zuten beharginek pairatu behar izan zuten esplotazio eta bizimodu latzengatik, beren artean, ideologi berri batek indarra hartuko zuen, sozialismoa. Langileak bizitza duina izateko eskubidea defendatuz. Ezker aldean oraindik sozialismoa bertako biztanleriaren gehiengoaren ideologia dugu.

Herri xehearen hizkuntza bezala kontsideratuz, euskaraz arnegatzen zuten gaztelaniaturiko euskal burgesek "Altos Hornos de Vizcaya" zuzentzen zuten, eta langileen kontratazioetarako gaztelaniaren ezagutza aldarrikatzean, guneko euskal hiztuna zen biztanleria, lana ez aurkitzean, mantenu baten bila Ameriketara emigratzeko bultzatua sentitu zen; Euskal Herritik kanpoko milaka pertsona, oster, industria honetara lan egitera etorri zen, Bizkaiko eskualde asko deseuskaldunduz. Honek hastapeneko abertzaletasuna industrializazio hasiberriarekin oso beligerantea izatea ekarriko zuen, euskaldunak espainiaritzeko eta, honela, euskal populua desagerrarazteko arietetzat kontsideratuz.

Barakaldon, gaur egun ezker aldeko hiririk garrantzitsuena dena, espainiera eguneroko hizkuntza den bitartean, XIX. mendeko garai batean ezin izan zuen Bizkaiko Juntetxera ordezkari bidali, non espainieraz hitz egiten jakitea baldintza zen, bertan espainieraz inork ez zekielako hitz egiten. Industrializazio-prozesuak Bilbo, ezker aldeko eta Bilbo inguruko udalerriko euskararen erabateko desagertzea ekarriko zuen. Egungo gaztelar hiztun den Bilbo Handiaren eta euskal hiztun den Bizkaiko ekialdearen arteko kontraste kulturala sortaraziz.

Hastapeneko abertzaletasuna ez zen bakarrik aurkakoa izan gaztelar hiztunak bakarrik kontratatzen zituen aurrera eramaten ari zen industrializazio-prozesuarekin, baita industrializaziotik sortu zen ideologia

sozialistarekin ere, antiklerikala, kanpotarra eta deserrotua zen ideologia kontsideratuz, Euskal Herri kanpotik etorritako jendearengan sortzeagatik.

Euskal sozialismoa ere ez zen abertzaletasunari kritikak egiten atzean geldituko eta erlijio-integrista eta arrazista bezala salatu zuen. XX. mendeko euskal ideologia nagusien arteko antagonismo hau desagertu egingo zen elkarrekin bat egitean espainiar errepublika eta demokraziaren defentsan, eta matxinada faxistaren aurka.

Sozialismoa sortu eta gero komunismoa sortu zen. Ezkerreko ideologia bi hauek XX. mendean zehar euskal gizartea asko eragin zuten. Eragin honetatik abertzaletasuna ez zen isolatuta geldituko. Hasierako EAJren zatiketa ezberdinetatik, pasan mendean, ezker abertzaleko alderdiak sortuko ziren, etorkizunean ezker abertzalea izango zena, abertzaletasunean EAJren lehiakide nagusia.

Sozialismoa eta komunismoa ere ez ziren eratuko abertzale eraginetik kanpo eta Sabino Aranak



sortutako Euskadi hitza eta ikurriña bereak egingo zituzten, eta baita euskal populuaren autodeterminazio eskubidea ere. Komunismoak oraindik autodeterminazio hau defendatzen jarraitzen duen bitartean, euskal sozialismoak, ostera, Espainian demokrazia berriz ezarritako geroko denboretan, ideologikoki aldatzera behartuta ikusiko zen Espainia mailako arrazoi politikoengatik, euskal autodeterminazioaren aurkako irmoa bilakatuz.

Euskal industria-prozesuaren ikurrik nabarmenetarikoa "Bizkaiko Zubi Esekia" dugu, bizkaitar kostaldeko Getxo eta Portugaleteko udalerriak lotzen dituen. 1893an munduko lehen transbordadorea bezala inauguratu zen. Alberto Palacio arkitektoak diseinatu, Unescok 2006ko uztailak 13an "Gizon-Emakume Guztien Ondarea" deklaratu zuen.

3. TOPONIMIA - PAISAIA LINGUISTIKOA

Onomastika dugu izen bereziak katalogatu eta aztertzen dituen zientzia. Alde batetik, historian zehar atzera eginez, ez dugu inola ere jakiterik izango zergatik ezaugarri batzuk gehiago nabarmendu ziren beste batzuk baino, leku, etxe, bide, iturri edo dena delakoa izendatzerakoan. Beste alde batetik, izena emanda dagoen puntutik historian barrena Aurrera joaz, etimologiaz baliatzen da onomastika hitzen jatorriaz eta jasandako eboluzioaz arduratzeko. Izan ere, hitz baten jatorria argitu ahal izateko, sorburuko esanahia, egitura eta eboluzioa aztertu beharra dago. Beraz, etimologia hizkuntzaren arkeologia da, hitzen sustraiak eta haien osagaiak ikertzen dituen, urteen edo mendeen terminoaren aldaerei arreta jarritz.

Leku izenen euskara/gaztelania elebitasunari dagokionez, toponimoen itzulpena, izen generikoen ordezkapena eta gaztelaniara egokitutako grafiak bezalako fenomenoak, bi hizkuntzak elkar ukitzen zeudela adierazten dute. Honi lotuta, sustrai euskaldunak ez duten toponimoek Enkarterriko beren-beregiko gaztelania dutela ardatz argudiatzen du, eta ugariak dira honen adibideak: La Serna, El Majuelo, Albiz, Urtetegi (urez Naroa den lekua), Elguero, Urtubeko, Labariega, Las Llanas (mahastileku 1642an), Iturburu (bertako urgunearen izena hartu zuen). Jauregi, Yartu, Arana, Borreaga, Etxebarriaga, El Callejo, El Valladar, El Alerón, La Alta de Arriba, El Pedazo...

“Hitzak egiten gaitu, eta aldi berean geuk sortzen dugu hitza” (**Andoni Egaña**)

3.1. SESTAO

3.1.1. Sestaoko historia

Sestao Bilbotik hamar bat kilometrora dago, Ibaizabalen ezkerrean. Herrian muino baten gailurrean dago, Grumeran mendilerroaren ondoan. Honako hauek ditu mugakide: iparraldetik Ibaizabal ibaia, hegoaldetik Trapagaran eta Barakaldo, ekialdetik Barakaldo eta mendebaldetik Portugalete.

Lurraldez herri txikia da Sestao, eta historikoki Sestao Enkarterriko Somorrostroko haraneko herrixka txikia izan da. Haranaren lehenengo aipamena Sumorrostro da, 1068. urtekoa. XII. menderako Enkarterri lau zati nagusitan bereizita omen zegoen: Mendebaldean Karrantza; erdialdean

Sopuerta eta ekialdean Salcedoko harana eta Somorrostroko harana, azken hau zazpi kontzejuk osatzen zutena.

1740. urtean Somorrostroko zazpi kontzejuak bi multzotan zatitu ziren: bata Lau Kontzejuak izendatua (Muskiz, Zierbena, Abantoko Santa Juliana eta Abantoko San Pedro), eta bestea Hiru Kontzejuak deitzen zutena, Sestao, Santurtzi eta Trapagaran. XIX. mendera arte iraun zuen honek, 1805. urtean Sestao udal bihurtu zelako eta 1848an komunitate erabat independente egin zen.

XIX. mendera arte Sestaoko bizimodua lurraren eta itsasoaren ustiapen tradizionalen oinarrituta egon zen eta euskalduna zen guztiz. Izan ere, XIX. mendeko auzoak aipatzen ditugunean, bi aro bereizi behar ditugu: bata, mende hasieratik 1870. urtera arte doana, landa-bizimodukoa; eta bestea, 1870etik aurrerakoa, industriari dagokiona.

XIX. mendearen azken herenean herria astindu eta betiko aldatuko zuen industrializazio eta migrazio prozesua hasi zen. Populazioaren hazkunde neurrigabeak Sestaoko tradizio-usadioak eta bizimodua suntsitu ez ezik, beste ondorio batzuk ere ekarri zituen, esaterako, langileen bizitegiak industriagunaren ondoan egiteko joera; Sestao muturreko kasu bat izan zen.

3.1.2. Sestaoko euskal toponimia ⁴

SESTAO: 1322ko Portugalete Hiribildua fundatzeko Pribilegio izeneko eskuizkribuan *Santa Maria de Sesto agertzen da (XIV. mendea)*:

Bilbao/Bilbo

Ubao/Ubo

Sestao/Sesto

Baina ez da inon kausitu Sestano hitza, Galdakao/Galdakano, edo Lazakao/Lazkano gaztelar erromantzearen eragina ez da inoiz gertatu Sestao toponimoarekin.

-ao atzizkiaz bukatutako toponimoak arras ugariak dira Euskal Herrian

ABATXOLO (XX): Mendebaldeko euskararen “*abade*” eta “*solo*” (soro) izenen elkarketa

⁴ Jorge Luis Tejedor, Toponimia de Sestao, Euskaltzaindia, 2016

AIZPURU (XVI): Alde batetik, *atx* hitza (haitz) eta kontsonante aurrean *ax-* edo *as-* bilakatu ohi dena. Beste alde batetik, *buru* izena. **Haitzaren punta** edo **muturra** zentzua hartzen du elkarketa honek.

ALBIZ (XVII): *Albi.k* pertsona izena adierazten du, eta *-iz* atzizkiak jabetza ala lekua adierazten du. **Albi izeneko baten jabetza** izango litzake.

AMETZAGA (XIX): *Ametz* zuhaitz izena eta *-aga* leku atzizkia, hau da, **ametzaren lekua**.



ARANA (XVII). *Arana* toponimoak bi osagai ditu, euskara estandarreko *haran* eta *-a* mugatzailea. Bestalde, euskara galdua ere hitz hau gazteleraz erabiltzen jarraitu zen, La Arana adibidean ikus daitekeenez, erdal artikulua horniturik eta genero femenino duela, dudarik gabe bukaerako *-a* bokala zela kasua.

ARANAGA (XVII): Bi osagai ditu, *haran* izena eta *-aga* leku-atzizkia eta bere esanahia. **Harana dagoen lekua**.

ARANOTEGI (XVIII): *Arano* abizena eta *-tegi* atzizkia, etxea edo lekua adieraz dezakeena. Beraz, Aranotegi leku-izenaren esanahia **“Arano deitutako lagun baten lekua edo etxea”**

ARBINAGA (XIX): *Arbin* adjektibo sustantibatua eta, beste aldetik, *-aga* leku atzizkia. Kontuan hartuta arbin hitzak estua edo meharra den zerbait adierazten duela, hau da, **bide estua**.

ARDASOLO (XVIII): *Arda/Ardamus/Ardanz* antroponimoa gehi *solo/soro*. **Ardaz izeneko lagun baten soroa**

ARRONTEGI (XVII): *Arr-* edo *Err-* hasieradun euskal hitzek bokala galdu ohi da gaztelerara moldatzean. Izan ere, Renotegui izendapena gertu dagoen Barakaldoko Arrontegi muinoarenarekin erlazionatu da eta bi izenok Arranotegi hitzaren desitxuratzea baino ez omen dira. Hau honela izanik, azpimarratu behar da toponimo honen osagaiak bi direla, bata arrano, hegazti harraparia, eta bestea *-tegi* leku atzizkia: **arranoen lekua**.

ARTEAGA (XVII): Arte zuhaitz izanea eta -aga leku-atzizkia: **arte dagoen lekua**.

ARTUTXO (XVII): Sasia, laharra esan nahi duen arto edo artu hitza, eta -xo amaiera, -zu atzizkiaren aldakia eta 'askotasuna' adierazten duena. Ondorioz, leku-izen honen esanahia '**sasi edo arte asko dagoen (lekua)**' izan liteke.

AURRERA (XIX): Industrializazioarekin batera sortutako auzoetako bat izan zen hau. Izena, hain zuzen ere, Aurrerá fabrikarenetik datorkio, Desertu aldeko paduretan kokaturik zegoena, Astilleros del Nervi3n ontziolak eta San Francisco fabrikak okupatzen zuten leku zingiratsu berean, hain zuzen.

AZETA (XVI): Azeta izenaren osagaiak hauek izan litezke: alde batetik, aza euskal hitza eta beste aldetik -eta, leku-ugaritasunezko atzizkia⁴⁶. Hau honela izanda, leku-izenaren esanahia 'aza asko dagoen lekua' izango litzateke. Baina kontuan hartu beharrekoa da, beste aldetik, Azeta gaztelaniazko toponimoa ere izan litekeela. Kasu honetan ere izenaren osagarriak bi izango lirateke: bata (h)aza hitza, latinezko fasc3a izenetik eratorria eta '**lursaila, laborantzarako arloa**' esan nahi duena, eta bestea balio tikigarria duen -eta erdal atzizkia.



BALLONTI (XVII): Euskaltzaindiko Mikel Gorrotxategik informazio hau eskaini digu toponimo honi buruz: «Ballonti oso toponimo zaharra da 1501ean horrela ageri baita. Euskal toponimoa da -ti amaierak argi uzten duen bezala, erdaraz -te izan behar baitzen. Behin Ballontegi ere ageri da».

BASOZABAL (XIX): Basozabal euskal izena da eta osagaiak bi ditu: baso izena eta zabal adjektiboa eta, beraz, bere esanahia '**baso zabala**' da.

BEURKO (XVIII): Beurko leku-izenaren jatorriari buruz iritzi batzuk daude. Batzuen ustez haren osagaiak bi(h)ur eta -ko atzizkia izan litezke, kasu honetan lekuzkoa edo txikigarria izan daitekeena. Beste batzuek, aldiz, toponimoaren osagaiak be(h)e eta ur direla esaten dute; kontuan har bedi ur hitzak erreka ere adieraz dezakeela. Gainera, biur(ko) osagarri gisa ere agertzen da toponimian, esaterako, Laspiur (hau da, lats-bihur, erdaraz '**retuerto**', alegia, '**r3o torcido**')

edo Mendibiurko kasuetan bezala. Azkenik, aipa dezagun Biurko toponimoa El Villar eta Guardia (Araba) herrietan ere dokumentatzen dela.

BILLABASO (XIX): Billabaso euskal abizenean bi osagai daude: bata euskarazko baso izena eta bestea, agian, billa, gaztelaniazko villa 'hiri' substantibotik datorrena, izan ere, hau hala balitz, toponimo hibrido bat genuke. Beraz, esandakoaren arabera Billabaso izenak '**hiri-basoa**' edo '**herri-basoa**' adieraz lezake

BORREAGA (XVII): Borreaga toponimoaren osagaiak bi dira, Borre (edo Borra) izena eta -aga lekuatzizkia. Leku-izen honen lehenengo zatiaz zera esan daiteke Santander aldeko hizkeretan badagoela hitz-talde bat, Borrigo, Borrego, Burro edo, Burruco, eta haien esangura '**azaoa, txola**' edo '**belar-piloa**' izaten direla. Beraz, litekeena da Borre- hitz familia horretako kide izatea, gure kasuan -aga euskal atzizkiaz horniturik.

ETXEBARRIAGA (XVII): Etxebarriaga toponimoa garden-gardena da eta hiru osagai ditu: etxe izena, barri, euskara batuko berri adjektiboaren mendebaldeko aldakia, eta -aga leku-atzizkia. Esanahia, beraz, '**etxe berria dagoen lekua**' edo '**etxe berria**' da, besterik gabe.



GANETZA (XVII): Ganetza euskal toponimoaren osagaiak bi dira, gan(e) izena, gain estandarraren mendebaldeko aldaera, eta -tza toki-ugaritasunezko atzizkia. Izan ere, uste dugu Ganetza hitzaren esanahia 'goragune laua eta zabala' izan daitekeela. Honen harira, Orotariko Euskal Hiztegiari Gaintza (< gain-tza) hitza ere agertzen da, esanahia, besteak beste, '**goragune**' delarik. Hala ere, agirietan agertzen den formarik zaharrena Ganaça da eta 1864 urtean Ganeta aldaera ere dokumentatzen da. Bizkaian gan eta gane formen arteko zalantza izaten da, honela Gantza eta Ganetza bezalako pareak sortzen direla.

GATATURRIAGA (XVII): Gataturriaga euskal toponimo ilun hau konposatua da eta hasiera batean argi ikusten den osagai bakarra -aga leku atzizkia da. Gataturri hitz segmentuari dagokionez, litekeena da bere osagaiak gata eta turri

izatea. Kasu honetan, pentsa liteke gata hitza kata-ren aldaera izatea, alegia, katu izenak hitz-elkarketan hartzen duen forma. Izan ere, kontuan hartu behar da euskaraz katu forma estandarra ez ezik gatu aldakia ere badagoela eta hitz-elkarketan dagokion forma gata- dela. Gainera, euskaraz hitz hasierako k- / g- alternantzia arrunta izan ohi da, kanbara / ganbara; kanbio /ganbio edo katukume / gatukume pareetan ikus daitekeenez. Beste zatia, Turri forma, iturri hitzaren desitxuratzea izan liteke. Hitz honek, elkarketan, hasierako bokala gehien-gehienetan gordetzen badu ere (kasurako Napariturri, Alperiturri), batzuetan i- hori galdu egiten da, Aralarko Lopeturri iturriaren izenean bezala, Lope pertsona izenaz eta iturri substantiboz osaturik dagoena¹²⁶. Beraz, esan genezake, hipotesi gisa, Gataturriaga leku-izenaren esanahia '**katuaren iturria**' izan litekeela

GOROSTIAGA (XVII): Gorostiaga euskal izen gardena da, gorosti (Aquifolium) zuhaitz-izenaz eta -aga leku atzizkiaz osaturik. Beraz, esanahia '**gorostia dagoen** lekua' edo '**gorostia**' da, besterik gabe.

IBAIZABAL (XVIII): Bestalde, Ibaizabal euskal hidronimo gardenaren osagaiak bi dira: **ibai izena eta zabal izenondoa**. Hala ere, gure dokumentazioan La Ría, La Ría de Bilbao eta El Río Nervión izendapenak baino ez dira agertzen eta erabilpenari dagokionez, gaur egun Sestaon erabiltzen diren izendapenak La Ría eta El Nervión dira. Bertako euskaldunen artean, aldiz, Nerbioi da gehien entzuten den izena, nahiz eta azken urteotan Ibaizabal jatorrizkoa ere ibiltzen hasia den.

IBARRA (XVII): Ibarra euskal toponimo garbia da eta bere osagaiak bi dira, ibar izena eta -a artikulua.

IHARTU (XVII): Ihartu izena, izatez, aditz-partizipio bat da, ihar '**zimel, lehor**' adjektiboaz eta -tu aditz atzizkiaz osaturik dagoena, eta mendebaldeko euskarari dagokion aldakia igartu da, bokalarterko -g- galdu ondoren iartu / yartu bilakatzen dena. Batzuetan, gaztelaniaren eraginaz, hitzaren amaierako -u bokala -o bihurtu ohi da, honela Yarto aldaera sortzen dela.

INTZARRAGA (XVII): Euskal toponimo honen osagaiak bi dira, intzar izena, intxaur (Juglans regia) estandarren aldaera, eta lekua adierazten duen -aga atzizkia, eta, beraz, Intzarraga hitzak esan nahi du '**intxaurrondoa dagoen lekua**' edo '**intxaurrondoa**'. Hitzaren jatorriari buruz, litekeena da Intzarraga hitza intsaurraga batetik eratorria izatea. Izan ere, Bizkai aldean arrunta izan ohi da ts > tz bilakaera herri hizkeran eta, ondorioz, intsaurraga hitza intzaurraga ebakitzen da. Halaber, mendebaldeko euskalkietan ohikoa den -au- > -o- diptongoaren murrizketa ere ikus dezakegu hitz honen bilakaeran, alegia,

Intzaurraga > Intzarraga, gaztelaniazko grafiaz, Inzarraga, izan ere, tz euskal digrafoa z bezala transkribitu ohi da hizkuntza horretan.

IRABAN (XVIII): Iraban euskal toponimoaren osagaiak bi dira: ira **'garoa'** izena eta eban aditza, ebaki estandarren mendebaldeko aldaera, eta bere esanahia **'ira ebakitzen den lekua'** da. Oñati herrian badugu izen honen aldaki bat, Ireban¹

ITURBURU (XVII): Iturburu euskal toponimo garden-gardena da eta bi osagai ditu: itur izena, iturri substantiboaren hitz-elkarketarako aldaera, eta buru hitza, 'jatorri' edo 'hasiera' ere adieraz dezakeena.

JAUREGI (XVII): Euskal Herri osoan barrena hedaturiko toponimo honek bi osagai ditu, **jaur** forma, **jaun** izenaren hitz-elkarketarako aldaera, eta **-(t)egi** atzizkia, eta bere esanahia da 'jaunaren tokia' edo 'jaunaren etxea'. Halaber, kontuan har bedi Euskal Herriaren mendebaldeko ahoskera yauregi izaten dela.

KAPELLASOLO (XVI): toponimo honek bi osagai ditu, Kapella, pertsonaizena edo ezizena izan litekeena, eta solo hitza, soro estandarren mendebaldeko aldaera. Hortaz, bere esanahia da **'Kapella izeneko norbaiten soroa'**.

LABARIEGA (XX): Hitz-hasierako O- bokalaren aferesia edo galera gertatu izana, jatorrizko izen osoa. *Olabarriaga izaki Olabarriaga toponimoak hiru osagai ditu, Ola izena, barri adjektiboa eta -aga leku-atzizkia, eta bere esanahia **'ola berria dagoen lekua'** edo **'ola berria'**.

LARRETATEGI (XVII): Larretategui euskal toponimoa da eta bere osagaiak dira, larre izena, -eta- lekuugaritasunezko atzizkia eta -tegi leku atzizkia eta kasu honetan esanahia **'larreak dauden lekua'** edo **'bazkalekua'** izango litzateke. Baina litekeena da Larreta abizena izatea, orduan -tegi atzizkiak 'etxea' adieraziko luke eta Larretategi izenak 'Larreta familiaren etxea' adieraziko luke. Lartategui aldaerari dagokionez, esan behar da -e- bokalaren sinkoparen kausa azentua dela, aurreko bokalaren galera eragin dezakeena, alegia: Larretátegi > Larr(e)tátegi > Lartátegi.

LEZAMA (XVII): Lezama izenaren osagaiak bi dira: leza forma eta -ama atzizkia. Azken honetaz Mitxelenak dio -ama atzizki indoeuroparrarekin erlazionaturik dagoela eta Arama, Beizama, Ulzama, Zegama... izenetan agertzen den bera dela. L. M^a Mujikaren iritziz, berriz, Leza euskarazko leza **'osin'** hitza bera da eta -ama osagaia, aldiz, atzizki zelta arkaiko bat.

MARISKETA (XIX): Leku-izen honen jatorriari dagokionez, badago hitz-talde indoeuropar bat, marisca, maresk, marask eta merisk formez osaturik, 'leku zingiratsua' adierazten dutenak. Hau honela dela, Marisketa izenaren

osakuntza marisk gehi -eta, leku-ugaritasunezko euskal atzizkia, izan liteke. Kasu honetan esanahia, **‘padurez beteriko lekua’** edo **‘padura’** izango zen

MARKONZAGA (XVIII): Markonzaga euskal toponomioaren bi osagaiak dira Markonza ustezko pertsonaizena eta -aga leku atzizkia, pertsona izenekin ere ager daitekeena. Beraz, esanahia **‘Markonza izeneko norbaiten etxea edo lekua’** izan liteke. Gainera, antroponimoari dagokionez, esan behar da Portugalen Margonza bat dokumentatzen dela eta, batzuen aburuz, izen latinaurreko eusko-hispaniarra izan litekeela. Bestalde, gure dokumentazioan Malconza eta Marconza aldaerak ere agertzen dira, -aga atzizkiaren galera edo murrizketarekin, herri-euskaraz sarri gertatu ohi den fenomeno.

MENDEBAL (XVIII): Leku honetan Mendebarr deitutako baserri bat izan zen, beharbada, izenaren aldaera zaharra. Hala ere, litekeena da, J. M^a Sasiak dion bezala, jatorrizko forma ***Mendibar** izatea, herri etimologiaz Vendabal bilakatua, hots, mendibar > mendebarr > mendebal, eta honetatik vendabal aterako litzateke.

MENDIETA (XVI): Euskal toponimo argi honek bi osagai ditu: bata mendi hitza eta bestea -eta toki ugaritasunezko atzizkia eta, lekuaren arabera, bere esanahia da, **‘leku menditsua, gaina’** edo **‘mendia’**. Izan ere, alderdi honi La Alta edo El Alto de Mendieta esaten zitzaion.

MENDOZA (XVIII): Izen honen jatorriari eta esanahiari dagokien aldetik, Mitxelenaren ustez Mendoza euskal izen konposatua da eta haren osagaiak mendi izena, (h)otz adjektiboa eta -a artikulua dira, bere esanahia **‘mendi hotza’** delarik. Hala ere, berrikiago, P. Salaberri Zaratiegi irakasleak bere desadostasuna agertu du iritziz honekin, arrazoi morfologikoa dela kausa.

ONDEXAR (XVI): Ondexar hitzak **‘sakonune edo sakonera’** adieraz lezake edo **‘ondexa zaharra’** izango litzateke.

ONDEZAGA (XVI): Ondezaga euskal izenak bi osagai ditu: ondeza izena eta -aga leku-atzizkia. Aurreko sarreran esan legez, gure ustez ondeza hitza mailegu bat da, gaztelania zaharreko fondeza **‘sakontasun’** substantibotik datorrena, eta beronek latinezko (pro)fundus **‘sakon’** adjektiboa du sorburu. Beraz, esanahiari dagokionez Ondezaga izenak **‘sakonune’** edo **‘sakonera’** adieraz lezake

REBONZA (XVII):Iñigo Rementeria idazleak dio **Rebonza abizena** sestaoar jatorrikoa dela

SIMONDROGAS: (XIX) Simon Gardiazabal Andetxaga elorriarra drogeria-negozioa ipini zuen lekuak geroago *Simondrogas* izena hartu zuen.

Garaiz garaiko gizartearen berri ematen du, Elorriotik Sestaora mugitzeak eremu euskalduna zela esan nahi duelako.

TXABARRI (XVIII): Txabarri euskal abizena **Etxabarri**-tik eratorria da. Hasierako E- bokalaren galera nahiko hedaturik dago Enkarterri aldeko toponimian.

TXINBO (XIX): Txinbo euskal izenak duen esanahia da '**ureztatzeko ur-biltegia**'.

URBINAGA (XIX): Urbinaga euskal leku-izenaren osagaiak bi dira: Urbina hitza eta -aga leku-atzizkia. Oraintsu arte pentsatu izan da gehienbat Urbina izena, ñabardurak ñabardura, ur hitzetik eratorria zela eta bere esanahia, besteak beste, '**uren (ibaien) bilgunea**' izan litekeela

URKIJIO (XVII): Urkijo euskal izena Urkizu-ren aldaera da eta bi osagai ditu, urki (Betulla) zuhaitz izena eta ugaritasuna adierazten duen -jo atzizkia, -zu estandarren aldaki belarizatua. Bere esanahia da '**urki asko dagoen lekua**'.

URTETEGI (XVIII): Iñigo Rementeria idazleak dioenez Ortitegi / Ortitegui (sic) **abizena** sestaoar jatorrikoa dela

URTUBEKO (XVII):Urtubeko euskal toponimoaren osagaiak bi dira: alde batetik urtu hitza, ortu izenaren aldaera, (Ortusaustegi / Urtusaustegi edo Ortu-ondoa > Urtundua, bezala), eta beste aldetik, -beko, euskara estandarreko -beheko izenlagunaren aldakia. Beraz, Urtubeko leku-izenaren esanahia da, '**ortuko beheko partea**'.

ZENDEXA (XVIII): Antza denez, cendeja hitza euskarazko zingira izenarekin erlazionaturik legoke eta biak latin arrunteko *caenīca batetik letozke. Egilearen arabera, cendeja hitzaren -ja silaba ugaritasuna adierazten duen -tza euskal atzizkiaren belarizaziotik letorke. Izan ere, dio, XIX. mendean Bilbon dokumentatzen den Sendessa leku-izenaren -ss- digrafoa euskal -tz-ren ordaina litzateke. Beraz, cendeja hitza zendetza euskal formatik sortuko zatekeen, honako bilakaera hau izan eta gero, zendetza > cendessa /sendessa > cendeja / sendeja. Esanahiari dagokionez, hitz honek adiera bat baino izan ditzake eta, besteak beste, '**padura, leku hezea**' edo 'kanala' bezalako esangurak eduki litzake.

3.2. PORTUGALETE

3.2.1. Portugaleteko historia

Portugalete hiribildua Maria Diaz Harokoak eratu zuen 1322. urtean, Bizkaiko beste hiribildu batzuk bezala. Aurretik, Enkarterriko arrantzaleen herrixka txikia izan zen Portugalete. Hasierako hiri-gutuna galdu bazen ere, 1432an berretsi egin zen Gaztelako Joanes II. erregeak emandako opariaren bitartez. Mendetan, Bilborekin lehian aritu zen merkataritza nagusigoa nork izango zuen erabakitzeko, norgehiagoka 1511n gaur egungo hiriburuak irabazi arte.

XIX. mendean herriaren jarduera nagusia izan zen arrantza industria eta zerbitzuak ordezkatzuz joan ziren. Kostaldean izanik haren hondartzaz eta bainuetxeaz, burgesia berriak bertan kokatu zituen bere udarako etxebizitzak, eta Kai Barriaren inguruan, bere jauregitxoak eraiki zituen. Hala, XX. mendean zehar Portugalete Ezkerraldeko merkataritza eta aisialdirako gune bilakatu zen.

Portugaleten ez zen fabrika asko ezarri, eta altxatu zirenak batez ere udalerriaren mendebaldean altxatu ziren (*Moyresa* esaterako). Dena den, herria industrializazioak erakarritako biztanleria handiaren jomuga bilakatu zen. Makina bat etxebizitza eraiki ziren Portugaleteko alde zaharra zegoen gunetik harago, ekialdetik mendebaldera.

3.2.2. Portugaleteko euskal toponimia

PORTUGALETE toponimoaren jatorria ezezaguna da eta gaur egun gai eztabaidatsua da adituen artean.

Juan Antonio Moglek 1803an José de Bargasi bidalitako eskutitz batean Portugal eta Portugalete toponimoek jatorri bera zutela idatzi zuen, latinezko *Portus-galorum* edo zelten portua^[2]. Hala ere, gero teoria baztertu egin zuen ez Portugaletek, ez Portugalek ez zutela inoiz halako ezaugarririk izan argudiatuz. Geroago, beste teoria bat proposatu zuen: euskarazko Portu eta Ugaleta/a hitzen lotura, azkenak «**ura gelditzen den txokoa**» esan nahi du.

Beste batzuek euskarazko Portu eta Ugaldeta hitzen lotura dela esan dute, azkenak «**portuaren urertzak**» esan nahi du.

ARDASOLO (XVIII): Sestao eta Portugalete herrien arteko lekua, **Arda izenekoaren soroa**

ATXIAGA (XVII): **Haitz asko dagoen lekua**

AXEO (XVII) -o atzizikia oso ohikoa da gure toponimian. **Haitz** esangura ei dauka.

AZETA: Atxeta toponimoa bezalakoa da, **haitzak dauden lekua** esan nahi dute.

BARRENETXEA (XVII): **Kale bien erdiko etxea**

BARRENOLA (XVIII) **Bide bien erdiko korta, ola edo lekua**

IBARGUTI (XIX): Ibaizabal eta Abaro ibaien erdiko gunea zen.

MANTURBURU (XVII): Repelegan dago. Bi terminoren elkarketa da, *man* eta *turburu*, eta ez dago argi zein izan litekeen lehen hitzaren esangura.

MANZALANAGA (XVII): **Sagarrak dauden lekua**, euskara eta gaztelaniaren elkarketa ei da.

MERTXIKA: Ametziaga terminoaren sinonimotzat hartu ohi da, hau da, **ametzak edo haritz emeak dauden lekua**. Baina mertxikak dauden lekua ere izan daiteke.

ORTUONDO (Data zehaztu barik): Ortuen ondoan.

REKARTE (Data zehaztu barik): **Erreken artean** esan nahi du.

TELLAETXE (XIX): **Teilak dituen etxea da.**

ZULUAGA (XVIII): Zearra (**mendi-magala**) edo Sierra hitzak ere agertzen dira leku honetan. Gaur egun Los Hoyos izena ere hartzen du leku honek, topografiari dagokionez oso **leku aldapatsua** baita.

3.3. SANTURTZI

3.3.1. Santurtziko historia

Erdi Aroaren hasieran, Alfontso I.a errege asturiarrak Duero eta Ebro haraneko biztanleekin populatu zituen Sopuerta eta Karrantzako lurak. Hauek izan ziren Bizkaian kristautasuna pixkanaka sartu zutenak, mahatsa eta artoaren landaketarekin batera. XVI. mendetik aurrera Bizkaiko jaun handiek lurraldearen antolaketa aldatu zuten. Somorrostroko zazpi kontzejuek bi errepublika osatu zituzten Enkarterrietan, Avellanedako batzar-nagusietan ordezkaritza zutenak. Santurtzik, Sestaok eta Trapagaranek "Somorrostro Haraneko Hiru Kontzejuak" izeneko multzoa osatu zuten XIX. mendera arte. Santurtzi, "Santurce" izeneko udalerriaren zati zen Ortuellarekin batera.

XIX. mendean herrietako jarduera nagusia nekazaritza zen. Dena den, pixkanaka, industrializazioak eraginda, nekazaritzaren garrantzia galdu eta industriak eta meatzaritzak garrantzi handia hartu zuten, udalerrietako kontzejuen egitura ere aldatuz. Horrela, "Santurce" izeneko udalerria bitan banatu zen 1901. urtean. Batetik "Santurtzi Zaharra" (gaur egun Santurtzi dena), eta bestetik "Santurtzi Ortuella" (gaur egungo Ortuella).

Industrializazio prozesu azkarrak Santurtzi erabat aldatu zuen, kanpoko portuko kaia eraiki zen, herriko hondartza lehorte eta itsasoari hainbat metro koadro irabazi zitzaizkion industrian aritzeko leku gehiago izateko. Herriko eta inguruko udalerrietako enpresetan lan egitera etorritako hainbat biztanle etorri zen Santurtzira, Bizkaitik aurrena eta Espainiatik ondoren. Biztanle gehiago izatearekin, azpiegiturak ere handitu behar izan ziren, eskola, ospitale, zaharren egoitza, sehaska-etxea eta nautika irakaskuntzarako lehen eskola eraiki ziren. Bilboko portua herriko ardatzetako bat bihurtu zen pixkanaka.

Gerra Zibilak eten egin zuen prozesu hura, baina 1949. urtean berriro hasi zen herria biztanleria irabazten eta itsasoari eremu handiagoa hartu zion, ontziolak, udaletxea, azoka eta babes-ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko. 1901. urtean 3.000 biztanle baino ez zituen herriak 55.159 biztanle izan zituen 1978. urtean. Biztanleriaren eztanda hark zerbitzuen gabezia itzela eragin zuen, batez ere ur-hornidurari zegokionez. Horrez gain, herriko ortu eta larreak galdu egin ziren, zetorren biztanleria hartzeko etxebizitza piloa eraiki behar izan zelako. Pixkanaka ekonomia dibertsifikatuz joan zen eta Iberdrolak energia elektrikoa ekoizteko zentral termikoa eraiki zuen.

1970eko hamarkadako krisialdiak eragin latza izan zuen herrian ezkerraldeko hainbat udalerri bezala.

3.3.2. Santurtziko euskal toponimia

SANTURTZI toponimoa bera euskalduna da, **San Jorgetik** datorkigu.

HERRIBITARTE (XX): Portugalete eta Santurtziko muga definitzen duen auzoa eta kalea ere da.

MAMARIGA (XV): Carlos Glariak fitonimo euskalduntzat hartzen du Mamariga izena, Madariaga edo **madariak dauden lekua** adierazten du.

Ander Ros Cubasek beste jatorri bat proposatzen du. Berak uste du oronimo zeltiar batetik datorrela, Mamarika izenetik hain zuzen ere, eta **talaia edo mendixka** adieraziko luke.

MELLOGANE (XVI): Latinezko **Mello (sagarrondo)**, gehi euskarazko gane leku atzizkia.

OTXANDIA (XIX): **Otso handia** edo **jabetza/ondasuna** ere esan nahiko luke.

RANZARI (XIX): Arantzadi/Arantzari hitzetik datorkigu, hau da, **arantzak dauden lekua** esan nahi du, eta Santurtziko parke bat da.

SERANTES (XVII): Bizkaiko **abizena** da



4. IKERKETA SOZIOLINGUISTIKOA

4.1. EUSKARAREKIKO DISKURTSOAK GIZARTEAN

Durantik⁵ esaten duenez, gizarteko oinarrizko ezaugarri kulturaletako erabilpen linguistikoak eta lexikoak elkarrekin lotzen dira hizkuntzalaritza antropologikoan eta komunikazioaren etnografian. Toponimoen bidez, Ezkerraldea XIX. mendera arte zonalde euskalduna izan zela jabetzen gara.

Beraz, giza diskurtsoa historikoki kokatzea eta gizarteak idatzi edo irakurtzen duenean zer nolako mugak dauzkan ulertzea, ezinbesteko kontuak dira gizarte baten argazkia izateko, hizkuntza kultura-baliabidetzat eta kultura-praktikatzat jotzen baita.

Beraz:

Hizkuntza bere testuinguruan ikertu behar da.

Hizkuntzaren ikerketak deskribapen gramatikala ez ezik, hitz egiteko moduak ere aztertu behar dira.

Hizkuntza komunitatea abiapuntua izan behar da

Gizarte diskurtsoak gizartea bera islatzen du, gizarte horrek bere kolkotik ateratzen duen hitz jariora bere esentzia delako edozein motatako adierazmenean.

Izan ere, gizartearen edozein testu aberasteko funtsezkoak izan diren aurreko kultura geruza askoren ondorioa gara, berba egiten duguna garelako esaten dugu -eta. Komunikazio jarduera bakoitzean, giza-harreman bakoitzean, transmisio modu bakoitzean, irakurketa eta idazketa prozesuetan, gizarte bakoitzak bereganatzen du diskurtsoa, giza eta kultura bilakaera sinbolikoa izanik.

Diskurtsoa identitatea da, eta hori landuz gero, agian, euskararen erabilera iraunkorra lortu genezake, edo behintzat, hori da nire itxaropena eta nire egunerokotasunaren grina.

Ikasleei euskaraz egin dezatela esan ohi diegu, baina haiek beren diskurtsoa euskaratu nahi ez badute, nekez lortuko dugu euskaraz egitea, ezagutza maila ona badaukate ere, gure nahia ez delako haiena.

Horregatik, euren diskurtsoa modu iraunkor batean ikasgeletatik kaleratu ahal izateko, agian, etxetik dakartzaten biografia linguistikoa, hizkuntza jarrerak eta emozioak landu beharko genituzke, euskal identitateari indarra emateko eta

⁵ Duranti, *Antropología lingüística*, Madrid, 2000

haiengan errotzeko euskalduna denak euskaraz egiten duelakoa, diskurtso horretaz harro egonik.

4.2. HIZKUNTZA EKOLOGIA

Gure gaur egungo galeraren erritmoa oso bizkorra da, zentzu guztietan esanda. **Belén Urangak**⁶ esaten digunez, gure hizkuntzak mundu mailan galtzen ari gara, eta horrek kulturaren galera eta komunikazio tresnaren galera ere dakartza. Ezkerraldean egon zen industrializazioa zela eta, kutsadura handia egon zen eta gaur egun naturarekiko daukagun ezagutza hizkuntzaren bidez egiten da. Beraz, lotura egoteaz gain, bizitza ulertzeko, interpretatzeko eta garai berrietara egokitzeko bidea ere galtzen dugu, sormenerako eta egokitzeko gaitasunarekin bat.

Hizkuntza aniztasuna dagoen lekuetan bio aniztasuna ere dago, lotura argia dago, beraz, hizkuntza bizipenerako faktoreek eta naturaren bio aniztasunaren faktoreek ere lotura daukate. Izan ere natura, espeziak, landareak babesteko kudeaketa eta babes neurriek hizkuntzak babesteko ere balio dute, balore berberak dauzkate –eta:

Iraunkortasuna + Jasangarritasuna = dimentsio kulturala = hizkuntza

Aniztasuna = balioa edo ondarea

Animalia espezie bat babestu guran bagaude, espezie horren ezaugarriak ikertu beharko dira, hau da, habitat eta bizi ahal izateko baldintzak arakatuko dira. Halaber, hauek badira hizkuntzen ekologiak egiten duen ekarpena. Baina hizkuntzen arteko harremana aztertzeaz haratago doa, hizkuntza horiek hitz egiten diren ekosistema edo inguru linguistiko horrek nola eragiten duen hizkuntzen arteko harremanetan datzalako.

Adibidez, **Goierri** edo **Ezkerraldea**, bata bestearen aldean ipintzen badugu, ezagun dugu euskarak funtzio eta presentzia desberdinak dauzkala, praktikarako edo euskaraz bizi izateko. Eta hori ulertzeko ez dago zertan joan Amazoniara obretako inpaktoa ulertzeko, hemen berton gertatu zelako. Ezkerraldean XIX. mendetik aurrera egon zen industrializazioaren eragina aztertuz gero, itzela izan zela atzemango dugu. Somorrostroko (h)arana izatetik, Ezkerraldea izatera pasatu zen. Euskalduna zen aldea izatetik, erdalduna izatera pasatu zen. Naturan zegoen aldea izatetik, etxez betetako aldea izatera pasatu zen.

⁶ Belén Uranga, Hizkuntza-ekologia. Ekologia biologikoa eta hizkuntza-ekologiaren arteko joan-etorriak, 2011

Gure beharrak eta datozen beharrak asetzen dituen gizarte eredu baten bila gabiltza, eta horretarako babes instituzionala, gizabanakoaren jarrera praktikoa, eta komunitatearen jarrera praktikoa ere bai.

Gizarteratu behar da gaia hausnarketa bultzatzeko koherentziaz eta behartu barik. Erkidego osoan guztiok gaudelako, barku berean gaude, baina zenbat eta arraunlari gehiago izan, arinago helduko gara daukagun tokira, toki horretara heltzera inor behartu barik.

Krisi ekologikoari edota linguistikoari aurre egiteko eskoletatik ematen ditugun urratsak edo hartzen ditugun helburuak gauzagarriak izan behar dira, kosta ahala kosta. Eta Agenda 21 zein Normalkuntzaren jabetza edo ahalduntze prozesuak programetatik hainbat zentro desagertzea ekarri beharko luke, hori gertatzen den egunean arrakasta lortu dugun seinale izango da.

Askotan pentsatzen dugu natura babesteko kontzientzia lortu dugula, baina kontzientzia baino gehiago, beldurra diogu planeta desagertzeari, hori guztion bukaera izango litzatekeelako. Hizkuntzak desagertzeari, ostera, ez diogu beldurrik, guk galera linguistikoa gorabehera, bizirik jarraituko genuke –eta.

Ez gara kapaz ulertzeko hizkuntza baten heriotza komunitatea, gizabanakoa, estatusa eta giza-hizkuntzaren kontra doala, hau da, ekologia planetaren aurka doala.

Honen kontzientzia hartzea baloreak izatea da, aspaldiko kixkia gaurko garapenetara moldatuz, ohitura eta praktika onak sarituz.

4.3. HEMENGO HIZTUN AKTIBOEN IKUSPEGI PSIKOLOGIKOA

Arestian aipatu dudanez, Ezkerraldea euskalduna izan zen XIX. mendera arte, bere diskurtsoa, paisaia linguistikoa eta identitatea euskaldunak ziren gutiz. Industrializazioa zela eta, gaztelania nagusitzen hasi zen euskara gutiz desagertu arte.

Dena dela, identitate euskaldunak leialtasunera eraman ditu Ezkerraldeko batzuk, eta horiek euskara bizirik mantentzen dute egoera gehienetan, askotan gaztelaniaz errazago egiten zaien arren, hizkuntzarekiko maitasunak **zailtasuna-maila** gainditzen duelako. Hortaz, **baieztapenezko jarrera** izan dute, edo izandakoa baino gehiago, hori da daukaten jarrera.

Ziur asko konplexuak sufritu zituzten euskaraz jakin barik jaiotzearen, edo erruki sentimenduak zituzten gaztelaniaz egitearren... Baina hori gorabehera, aurrera jarraitzen dute.

Ikusezin bihurtuko balira lez sentiarazi dituzte pertsona batzuek, beren euskara ez zelako besteena bezain garbia. Edo entzun behar izan dute,

gaztelaniarekiko nahasketa dela eta, hobe daukatela gaztelaniaz berba egitea eta kito, edo “maketos” hitz itsusiak ere bai...

Egia esan, beren **emozioak** kudeatzen jakin behar izan dute hitz horiek minik ez eragiteko beren **hizkuntza leialtasunari**. Azken finean, horrelakoak pairatzea ez da inorentzat aberasgarria izan, euskararen onerako ere ez. Beraz, kosta ahala kosta aurrera egiten jarraitu dute, konplexuek sortutako beste **autogorroto** mota hori saihestuz.

*Inguratzen gaituzten hizkuntzak gutxietsi eta gorrotatu barik, lehen elea euskaraz beti, euskarak behar gaitu –eta. **Hizkuntza jarrera** hori daukate, eta suposatzen dut euren **biografia linguistikoari** esker daukatela.*

Askotan Ezkerraldean ez dakite nork dakien eta nork ez, horregatik izan behar da euskara haien 1. aukera, gaur egun gehienok dakigulako euskaraz egiten, nahiz eta kontrakoa egin, daukaten hemengo **hizkuntza-ohituragatik**.

4.4. EZKERRALDEKO TRIBUEN BERBAK ETA HIZKUNTZA IRITZIAK

Ezkerraldeko egoera soziolinguistikoa ondo ezagutzeko asmoz, hainbat galdera egin zitzaizkien hemengo Normalkuntza mintegiko irakasleei, modu informalean haien hizkuntza kezak eta usteak helarazteko eta kokatzen laguntzeko. Ondoren elkarriketa horretatik atera ziren iritziak:

“Kike Amonarrizek egindako tribuen sailkapena”⁷ kontuan hartuta, ondorengo hauek dira Ezkerraldekoak:

- *“Euskal Herrian en erderaz y vale!”: Inguru erdaldunetan gertatzen da, indiferenteak nahiz aurkako jarrera dutenak dira.*
- *“Kaixumuxumuxu”: Ulertzeko arazo handirik ez dutenak dira, baina aspaldi ahaztu zuten ez erabiltzearen.*
- *“Euskañola nahiz eta harro nago”: Euskalduntze prozesua amaitu ez dutenak edo euskaraz gutxitan egiten dutenak.*

“Kolinguismoa dago, hainbat gunetan elkartzen den jendeak euskaraz egiten baitu (Arestian aipatu dudanez, Mamarigan).”

*“Kolinguismorik badago, **militantzia** ere dagoela esan dezakegu, nahiz eta kontrako ideia izan, azken aldi honetan militantzia pasibo bihurtu delako. Militantziarik badago, **euskal identitatea** ere dago, eta horrek erabilera bermatzen du.”*

⁷ Kike Amonarriz, Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena: gazteak eta euskara mendearen hasieran. Ikastolen Elkarteak: IX: Jardunaldi Pedagogikoak, 417-465 orriak, 2002.

*“Euskalki baten aurrean topatzen direnean, batzuk lotsatzen dira eta euskara ekidin dute. Beraz, **emozioak eta konplexuak** landu beharra daukagu, agian, Batxilerrean bizkaieraz berba eginez, **bizitzaren transferentziei** begira.”*

*“Antza, euskara ez da guay, ezta pro ere. Baina **maitasuna** bada, eta horren bitartez munduaren kolorea ez ezik, hizkuntza kolorea ere aldatzen da. **Emozioetan** dago koska, edo modu praktiko batean esanda, Barnetegietan egon liteke.”*

*“**Euskara informalaren kalitatearen** beldur izan beharrean, euskararen galeraren beldur izan beharko ginateke, hau da, **ahozko adierazkortasunak** dauka lehentasuna eta ikasleak esparru horretan mugatuta sentitzen direnez, beharbada, “pro” eta hau bezalako gauzak esateagatik ez genuke zertan sufritu, horrela esanez, gutxienez, euskaraz egiten dutelako berba, nahiz eta euskañola izan. Eta agian, euskalkirik ez dagoen guneeetan beste euskalki berri bat sor liteke, batek daki! Soziolinguistikan denak balio du, eta ez dago hobeala txarragoa den euskalkirik, gune baten errealitatea islatzen duen hizkuntza bat baizik. Guay garelakoa sinistu eta plazaratzen dugu, horrela jokatzuz.”*

*“**Merito handikoak** dira hemengo euskaldunak, eta hemengo euskararen motorra direla ulerturik, horrela ere baloratu behar.”*

*“Norberak egiten duen **hautamen linguistikoak askatasuna** islatzen du, eta askatasun horretatik geurea aukeratzea nahi dugu, **bezero-orientazio** zein **produktu-orientazioari** begira, inposaketak saihestuz eta adostasunak bilatuz.”*

Esan dudanez, mamurketa edo ondorio guzti hauek modu informalean eta norberaren iritziak jasoz eskuratu ziren. Halaber, ikerketa soziolinguistiko bat prestatu zen Ezkerraldeko Batxilerreko ikasleei pasatzeko, horrela gazteen iritziak ere jaso ahal izan ziren eta hori garatuko dut hurrengo ataletan. Azken finean, gazteen iritzi eta helduen iritzien arteko alde ederra egon ohi da, eta jakin badakigu, euskararen etorkizuna gazteengan dagoela.

4.5. HIZKUNTZA-JARRERAK, MOTIBAZIOA, IDENTITATEAK ETA AURREIRITZIAK

Normalkuntza programan sartuta dauden Ezkerraldeko ikastetxeetako Batxillerreko 1. mailako talde batzuei pasatu zitzaien galdetegi bat, hemengo gazteriaren hizkuntza-jarrerak neurtu ahal izateko. Beraz, 16 urteko gazteak dira, eta hezkuntza eredu desberdinetatik datozena hartuko dugu kontuan.

Ikerketa honen bidez hemengo egoera psikologikoak modu kuantitatiboan zein kualitatiboan islatzen dira, eta horietako erantzunetan datzan ingurunera ere hurbilduko gara.

Jarrerak ikusmolde edo hautemate desberdinak dira, hau da, hizkuntza edo aldaera zehatz baten aurrean, alde edo kontra erantzuteko **joerak** dira (nahiak, helburuak eta asmoak. Jarrerak jokamoldea bideratuko dute, eta aitortuak, aitortugabeak edo ezkutukoak izan daitezke. Hauek hizkuntza baten alde edo aurka egiteko **motibazioa** eragiten dute. Halaber, honela uler genezake jarreraren eta motibazioen arteko alde fina:

Jarrera – kognitiboa

Motibazioa – konduktuala

Barne-motibazioetan balio integratzailea edo **nortasuna** nagusitzen da. **Kanpo-motibazioetan**, oster, balio instrumentala edo **jarrera pragmatikoa** nagusitzen da. Eta **Bai-bainako**etako jarrera ez sutsua izango.

Martínez de Lunak egindako **motibazio sailkapena** ondorengoa izan zen:

- Motibazio sinbolikoa – partaide izateari lotua
- Arrakasta-motibazioa – gizartearen elite sozio-ekonomikoa
- Motibazio pragmatikoa – instrumentala, zerbaiten truke-ordainekoa, inguruneko baldintzak sortzen dituztenak

Laburbilduz, jarrerei buruz aritzea, gizabanakoek (eta taldeek) objektu, pertsona, erakunde edo ekimen zehatzen aurrean, alde edo kontra erantzuteko joerei buruz hitz egitea da. Joera da jarrera, eta jarrera ezagutuz jokaerak aurreikusi nahi dira, ikuspegi psikologikotik abiatuz psikologia sozialera joanez.

Kontuan izan behar da jarreraren nolakotasunak ezagutzeak erkidego jakin baten pentsaera, sinesmenak, lehentasunezko gaiak eta nahiak ezagutzeko aukera

ematen duela (**Colin Baker**)⁸. Beraz, jarrerak aztertzean, norbanakotik taldera igarotzeko bidea egiten da.

Jarrera da zerbait egiteko dugun joera. Gainera, jarrerak egoera psikologikoak direnez, ez dira agerian egoten, estalita baizik (**Baker, 1992**).

Motibazioa: ekintza edo jokabide baten iturburuan diren indar guztien bilduma.

Hau da, jarrera eta motibazio kontzeptuen arteko bereizketa oso fina izan arren, badirudi ikerketa-tradizio zehatzei lotuta dagoela (Baker, 1992).

Nekane Larrañagak⁹ Euskal Herri osoko gaztetxoen jarreraren bilakaeraren azterketa egin zuen 1991tik 1999ra bitartean. Horretarako gazteek euskarari buruz idatzitako idazlanetan oinarritu zen. Bertan, euskararekiko bi jarrera-mota bereizi zituen: **jarrera izanarazlea (jarrera integratzailea) eta truke-ordaineko jarrera (edo instrumentala)**. Lehenaren arabera, euskara norbere izateari edo izan-nahiari lotuta agertzen da honako iritziei lotuta: *Euskara gure hizkuntza da, euskaldun egiten gaitu, hizkuntza zaharra da, mantendu beharreko tradizioa da, Euskal Herriaren izaera eta oinarria hizkuntza da...* Truke-ordaineko jarreraren arabera, aldiz, euskara ikasiz gero zerbait jasoko da, esate baterako, lana topatzeko, ikasketetarako nahiz komunikaziorako baliagarria izango da...

Biak jarrera positiboak izan arren, lehenak eraginkorragoak direla ondorioztatu du ikertzaile horrek euskararen aldeko jokaerak (jokaera positiboak) aurreikusteko orduan (**Larrañaga, 1992**)¹⁰.

Gaztetxoen idazlanetako adierazpenak bere horretan irakurri ondoren, eta hitz adierazgarri bakoitzak bere testuinguruan duen esanahiaren arabera osatu zituen sailkapeneko kategoria desberdinak:

- **Eragile izanarazlea:** Jarrera integratzailea eta Txepetxeren esanetan, bai erabileratik edo bai motibazio kultural batetik abiatuta, hiztunak hizkuntza bat beretzat hartzen du eta hizkuntza horretan izan nahi du.

⁸ BAKER, Colin. 1992. *Attitudes an language*. Clevedon; Philadelphia; Adelaide: Multilingual Matters.

⁹ Nekane Larrañaga, Jarrerak eta jokabideak euskararen etorkizunari begira, 200

¹⁰ Nekane Larrañaga, Jarrerak eta jokabideak euskararen etorkizunari begira, 200

- **Trukeordainekoa:** Jarrerera instrumentala, pragmatikoa edo lana adierazten duena da.
- **Eragile integratzailea:** Honetan motibazio orientabide integratzailea ikusten da, balio komunikatzailea azaltzen da. Jarrerera integratzaile honetan ikuspegi soziala sumatzen da.

Jarrerera hauekin lotuta identitateak ere daukagu aztergai, **identitate euskalduna, elebakarra eta elebidun zatitua**, hain zuzen ere.

Gaur egun, zorionez, ez daukagu **gazte erdaldunik**, baina tamalez, guztiak euskaldunak izateak ez du esan nahi beren hizkuntzarekiko jarrerera positiboa denik. Euskaraz aritzeko gaitasuna badaukate ere, erabilera aldetik ahuleziak daukate hainbat arrazoiengatik. Izan ere, ondorengoak aurki ditzakegu:

- **Aldekoak:** Euskararekiko jarrerera positiboa
- **Bai-bainakoak:** Euskararekiko jarrerera ez sutsua
- **Kritikoenak:** Euskararekiko jarrerera negatiboa

4.6. LANAREN METODOLOGIA

Galdetegia Nekane Larrañagaren laguntzarekin sortu nuen Ezkerraldeko gazteen jarrerak ikertzeko, euren iritzien bidez, *hizkuntza-aurreiritziak* hizkuntza edo aldaera zehatz baten inguruan orokortu diren uste edo sinesteak direlako. Hortaz, aurreiritziek balio-judizio bihurtzen dira egitate diren ala ez kontuan izan gabe eta hizkuntzetatik hiztunenganako jauzia egiten dute. Eta gutxi izango balitz lez, aurreiritziek jarreretan dute eragina, eta mesedegarriak edo kaltegarriak izan daitezke. (**Amorrortu**, 2009)¹¹

Galdetegiak daukan oinarri digitala gazteei errazago helarazteko asmoz aukeratu zen. Gazteak limurtzea daukagu helburu, geureganatzea, horregatik abiatzen gara beren bila, ederto maneiatzen dakiten mundu digitalaren bitartez.

122 gaztek bete zuten inkesta. Lagin txikia da, egia esan, espero zena baino 150 gazte gutxiagok erantzun zuten. Maiatza aldera zabaldu zitzairen inkesta Ezkerraldeko 20 zentrotako euskara irakasleei, bakoitzak Batxilerreko 1. mailako klase batean pasa zezan. Beraz, 122 gaztek erantzutea baino 250 bat gaztek betetzea espero zen.

¹¹ AMORRORTU, Estibaliz; ORTEGA, Ane; IDIAZABAL, Itziar; BARREÑA, Andoni, 2009. *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.


Dena dela, lagin txikia izanagatik, zonaldeko argazki linguistikoa eskaintzen digu, eta galderaz galdera azaltzen diren emaitzarik interesgarrienak komentatuz, mamurketak zein ondorio batzuetara helduko gara.

4.7. GAZTEEN EUSKARAREKIKO JARRERAK: IKERKETA KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

4.7.1. Euskalduna sentitzen zara?

Euskalduna sentitzen zara?

122 respuestas



Euskalduna sentitzen zara?		
Aukera	Botoak	%
Bai	98	80,33
Ez	24	19,67

- Galdera honen bidez, hizkuntza jarrerak nahiz euskararekiko identitateak aztertzen dira, euskalduna sentitzeko edo ez sentitzeko eman zituzten arrazoietan horrelako sentimenduak eta pentsaerak adierazi zituzten -eta. Argiago ulertzeko, erantzun guztiak jarrera eta identitate desberdinei begira antolatu dira, haien artean somatzen diren ñabardurak agerian utziz.
- BAI erantzunak % 80,3:**

- Jarrera izanarazlea eta integratzailea - Identitate euskalduna adierazten dutenak

"Nahi dudalako"

"Euskal Herria maitatzen dut"

"Euskaraz bizi nahi dudalako".

"Betidanik euskaldun harro harro izan naiz, biziki maite dut euskal kultura."

"Nire aberrian bizi naizelako eta euskaraz hitz egiten dudalako"

"Euskal Herrikoa naz ta Euskara hitz eitea pilo bat gustatzen jat. Euskal Herriko ohiturak jarraitzen dodaz ta kulturen artean gurea bereziena dela uste dot"

"Ezin da hitzekin espresatu, sentimendu oso gogorra da"

"Euskadikoa naizelako betidanik".

"Maite dudalako bizi naizen lekua."

""Hemen jaio nintzen eta nire kultura euskalduna dela sentitzen dut"

"Nire herria gustuko dudalako"

"Oso harro nagoelako Euskalduna izateagatik"

"Euskal Herrian bizi naizelako eta euskeraz harro hitz egiten dudalako"

"ez naiz espainarra sentitzen"

"Euskera maite dudalako."

"Euskal Herrian bizi naizelako, eta maite dudalako"

"Nire kultura delako".

"Nire Herrian bizi naizelako"

"Nire herriarekin eta euskal kulturarekin bat egiten dut"

"Euskalduna naiz Euskal Herrikoa naizelako."

"Euskal Herrian bizi naizelako eta euskaraz bizi naizelako"

"Nire herriaz harro sentitzen naizelako."

"Euskalduna ere ez da soilik euskara jakitea, baizik eta hemengo kultura, abestiak ulertzea etabar"

"Euskal Herrikoa naizelako eta txikitatik euskaraz hitz egin dut eskolan, gainera euskera gure herriaren hizkuntza dela eta zaindu behar dugula uste dut, gehiengon mintzabide izatea lortu arte."

"Euskaraz hitz egitean lagunekin, herrialdetik kanpora joatean hitz batzuk esaten ditut, euskaldunon historia eta kultura jakin, maitatu eta defendatu egiten dut."

“Beti bizi izan naizelako Euskal Herrian eta nire gurasoekin eta familiarekin euskaraz hitz egiten dudalako.”

“Euskal Herria bizi naizelako eta kultura, hizkuntza.... ezberdina dugulako Espainiarekin eta Frantziarekin konparatuz.”

“Nik sentitzen dudalako Euskal Herrian jaio naizela eta ez Espainian.”²

“Euskara euskaldun egiten gaituena da”

“Euskara maite dut eta nire hizkuntza delako”

“Euskal herrian jaio nintzen eta hemengo kultura, hizkuntza... maite ditut, nireak dira.”

“Hemen jaio naiz eta Euskal Herria maite dut”

“Euskadi maite dudalako eta Euskal Herrian jaio naizelako.”

“Espainan dagoen egoera eta agintzen dutenek ez didate errepresentatzen”

“Hementxe hezitu naiz, hemengo kulturak eta ohiturak gustoko ditut. Azken finean horrek besteetatik desberdintzen gaitu”

“Euskara gustatzen zaidalako, baita euskal ohiturak, tradizioak... ere”

“Euskal herrian jaio nintzelako eta hemengo kulturarekin identifikatuta sentitzen naizelako”

“Euskal Herrian jaio naizelako eta hemengo ohituretatik ikasi dudalako”

“Euskal kulturarekin bat egiten dudalako, oso gustukoa daukat”

“Euskadin jaio nintzelako eta hemengo kultura maitatzen dudalako, lekuak, janaria, jendea, musika eta abar...”

“Espainia pedazo de mierda bat da.”

“Euskal Herriko kulturarekin identifikatuta sentitzen naizelako”

“Euskara ikasi dudalako eta euskara baloratzen dut, ez delako jakitzen beste herrialdeetan eta ez da hain komuna.”

- **Integratzailea - Identitate elebiduna (nahiz eta batzuk kanpotarrak izan)**

gustora daude hemengo hizkuntzarekin eta erabili guran daude, hemengoekin komunikatzeko):

“Hemen jaio eta hazi naizelako euskal kultura eta ohiturak jarraituz lagun pilo bat dauzkat”

“Euskaldun familia batean jaio eta gero, euskaldun sentitzen naiz. Horretaz aparte, euskaraz hitz egitea maitatzen dut honek lagun asko izateko ateak ireki dizkit -eta”.

“Euskaraz hitz egiteko gai naizelako, komunikatzeko gai naizelako”.

“Kultura honekin erlazionatzen naizelako hainbat pertsonarekin.”

“Nahiz eta pentsatu Espainian bizi garela, eta Euskal Herria Espainia barnean dagoela, Euskal Herrian bizi naiz, eta euskara dakit, beraz bai, euskalduna sentitzen naiz”

- Jarrera trukeordainekoa - Identitate elebidun zatitua adierazten dute (Euskara hemengoa da eta hemen beharrezkoa da lana topatzeko):

“Euskaraz hitz egin dezakedalako eta euskaraz ikasten dudalako lan ona aurkitzeko”

“Euskara nire buruarentzat erabilgarria iruditzen zaidalako”

“Beti euskeraz ikasi dudalako eta Euskadin baliagarria delako”

-

● **EZ ERANTZUNAK, % 19.7:**

Bai-bainakoak - jarrera neutroak eta nahasiak, euskalduna izateari kutsu politikoa ematen diotelako:

“Euskaldun espainiar baino gehiago bai, baina oraindik ez naiz inorekin identifikatzen osorik”.

“Euskalduna zein espainola, horrela sentitzen dudalako. Ziur aski jaso dudan heziketagatik.”

“Baina honekin batera espainiako ere”

“Euskalduna eta Espainiarra naiz.”

“Ez naizelako sentitzen leku konkretu batekoa”

Kritikoak - Identitate elebakarra (euskara ez da gurea):

“Ez naiz euskalduna, ez dudalako nire eguneroko bizitzan euskeraz hitz egiten”

“Ez dudalako euskera gustatzen”

“Nahiz eta Euskadin jaio, ere Espainian jaio naiz, eta horren ondorioz, ez naiz euskalduna sentitzen, Euskadi errepresentatzen ez naudelako”

“EZ ZAIDALAKO GUSTATZEN EUSKERA”

“Ez naiz Euskaraz mintzatzen”

“Espainarra sentitzen naizelako.”

“Euskal Herrian jaio arren, lehenengo Espainakoa sentitzen naizelako.”

“Ni espainarra sentitzen naiz Espainian bizitzen naizelako”

Creo que el país vasco no me representa

“Euskara ez zait gustatzen, euskal tradizioak ez naute arreta deitzen eta uste dut euskera oso modo txarrean inposatzen eta irakasten dela.”

“Es zait gusta tu euskara”


“nire etxean ez delako euskaraz hitz egiten”

“Euskaraz ez dudalako ia hitz egiten.”

4.7.2. Zer hizkuntza gustatuko litzaizuke jakitea horretan bizitzeko?

Zer hizkuntza gustatuko litzaizuke jakitea horretan bizitzeko?

120 respuestas



Aukera	%
Euskaraz	51.7
Gaztelaniaz	32.5
Ingelesa	5.3
Beste batzuk	9.9

Hemen euskara berriro suertatzen da “irabazle” jarrera izanarazleari esker, aurreko galderarekin lotura eta koherentzia emanik. Dena dela, hurrengo galderekin ez da besteko koherentzia egongo, sare sozialetan ez dutela euskaraz berba egiten aitortuko dutelako, nahiz eta euskaraz aritu ahal izateko lagun euskaldunak izan. Zergatik koherentziarik eza hau? Ezagutza faltagatik? Hizkuntza-ohiturengatik?

Bizi izateko hizkuntza gisa, euskara eta beste hizkuntza batzuk ere azaltzen dira, ziur asko trukeordaineko eragilea dela medio, gero bateko lana daukatelako helburu, hots, lanekiko hizkuntza ugari dago -eta.

4.7.3. Zein da zure ametssetako hizkuntza?

Aukera	%
Euskaraz	24
Gaztelaniaz	33.1
Ingelesa	19.7
Beste batzuk (Frantsesa, txinatarra, japoniarra, errusiarra, ...)	23.2

Galdera hau zalantzazkoa da, alde batetik pentsa lezaketelako lo egiten dutenean, ea zer hizkuntzatan egiten duten amets galdetzen zaiela, eta bestetik, pentsa lezakete zer hizkuntzatan gustatuko litzaiekeen bizitzea gero batean.

1. zentzuarekin erantzunez gero, euskara zer neurritan daukaten errotuta aitortuko dute.

2. ari erantzunik ematekotan, beren sentimenduak kanporatuko dituzte.


Ezagun dugu, identitate euskalduna eta jarrera izanerailea - integratzailea dauzkatenek, galdera zentzu bietatik ulertuta, euskara aukera klikatu dutena hizkuntza leialtasunagatik.

Jarrera trukeordainekoek euskara ez diren beste hizkuntza batzuk klikatu dituzte.

4.7.4. Geroari begira... zer hizkuntza uste duzu erabiliko duzula zure lanean?

Geroari begira... zer hizkuntza uste duzu erabiliko duzula zure lanean?

121 respuestas




Aukera	%
Euskaraz	20.7
Gaztelaniaz	69.4
Ingelesa	9.1
Beste batzuk	0,8

Galdera honen bidez balio instrumentala nagusitzen dela ikusten dugu, hots, kanpo-motibazioa eta jarrera pragmatikoa, Ezkerraldeko errealitatea nagusitzen baita. Tamalez, ez dira jabetzen euskararen garrantziaz hainbat lanbidetan, esate baterako, Hezkuntzan, administrazio publikoan, Osakidetzan, kulturgintzan... Eta horretaz konturatzen ez badira, ez da itsu-itsuan dabiltzan seinale, Ezkerraldean bizi duten errealitatea baizik. Hau da, horrek islatzen du hemengo egunerokotasuna gaztelania hutsean eraikitzen dela, lanbide horietan barne.

4.7.5. Zer hizkuntza erabiltzen duzu sare sozialetan?

Zer hizkuntza erabiltzen duzu sare sozialetan?

120 respuestas




Aukera	%
Euskaraz	5.8
Gaztelaniaz	90.8
Ingelesa	2.5
Beste batzuk	0.9

Hemen ere 1. gune soziolinguistikoan gaudelakoa islatzen da, eta honekin batera gaztelaniaren erabilera.

4.7.6. Sare sozialetan egin duzun azken idatzia zelan egin duzu?

Sare sozialetan egin duzun azken idatzia zelan idatzi duzu?

120 respuestas




Aukera	%
Euskaraz	9
Gaztelaniaz	81.1
Ingelesa	6.6
Beste batzuk	3.3

Helduok eraikitzen dugun egunerokotasuna gaztelaniaz eraikitzen badugu, zelan espero genezake haiek euskaraz bizitzea beren aisialdian? Aurreko itaunarekin koherentzia dago, guztiz, hau da, galdetegia zintzo bete dute.

4.7.7. Ba al daukazu euskaraz soilik egiten duzun lagunik?

Ba al daukazu euskaraz soilik berba egiten duzun lagunik?

121 respuestas




Aukera	%
Bai	67.8
Ez	32,2

Ezkerraldeetik kanpoko lagunak dauzkatenean jarrerak integratzailea sumatzen dute, euskarari esker beste toki askotako laguna izan ditzaketela jabetzen direlako.

4.7.8. Ba al daukazu euskaraz zein gaztelaniaz berba egiten duzun lagunik?

Ba al daukazu euskaraz zein gaztelaniaz berba egiten duzun lagunik?

121 respuestas




Aukera	%
Bai	87.6
Ez	12.4

Ostera ere Ezkerraldeko errealitatea nagusitzen da galdera honetan, izan ere, hemen bizi izateko ez da euskara behar.

4.7.9. Ba al daukazu gaztelaniaz soilik berba egiten duzun lagunik?

Ba al daukazu gaztelaniaz soilik berba egiten duzun lagunik?

121 respuestas




Aukera	%
Bai	95
Ez	5

4.7.10 Zergatik ikasten duzu euskaraz?

Zergatik ikasten duzu euskaraz?

121 respuestas




Aukera	%
Gure hizkuntza delako	62.8
Behartuta nagoelako	16.5
Lana aurkitzeagatik	8.3
Bestelakoak	12.4

Honetan eragile izanerazlea eta trukeordainekoak dira gehien aukeratu dituztenak, hau da, *norbere izateari, lana topatzeari eta ikasi beharraren aldeko jarrerai* dagozkienak dira.

4.7.11. Euskararen egoera ona dela uste duzu?

Euskararen egoera ona dela uste duzu?

121 respuestas



Aukera	%
Bai	33.1
Ez	66.9

* Euskararen egoerari begira, % 66,9k ikuspuntu positiboa dauka, batez ere pairatu beharreko hizkuntza errepresioa bukatu zenetik, ikasteko aukera eman zitzaigula kontuan harturik. Hori abantailatzat hartzen dute, hau da, lortutako eskubidetzat, eta horrek ezan nahi du gaur egun euskara sustatzeko hainbat ekitaldi egin ditzakegula.

% 33,1k gutxi erabiltzen dela uste du, ziur asko jarrera izanerailea edo integratzailea daukate ehuneko honetan daudenek, horregatik galtzeko arriskuan dagoela esaten dute eta horrela plazaratzen dute euren kezka. Ezkerraldean ia ez dela erabiltzen esaten dute, eta erabileraren jaitsiera nabaria dela kalean zein institutuetan ere adierazten dute. Azkenengo hori esanguratsua da guztiz, D eredu gura dugun moduan ez dabilen seinale delako, hau da, hankamotz dabilen seinale da. Duela 20 urte guztiok uste genuen D ereduaren bidez euskara normalizatuko zela, guztiengana zabalduko zela eta horrela izanik, erabileraren berrakortzea, baina ikusten dugunez, ez du erabileraren hutsunea bete, eta are okerrago, euskararen kalterako izan dela

jabetzen gara. D ereduaren zabaltzeak homologatu ditu identitate desberdinak dakartzaten ikasleak eta homologatzeak gaztelania nagusitu du. Iritzi hauek ematen dituzten hiru ikaslek gure hizkuntzak merezi duen prestijioa edo garrantzia aldarrikatzen dute. Eta beste batek ezagutza falta ere salatzen du.

Euskara biziberritzeko helburuz azken hamarkadetan eginiko lana eredugarria izan da, hezkuntzak zein hizkuntza-politikek ingurumari berrira ekarri dutelako gure hizkuntza, gure hizkuntzak milaka hiztun irabazi dituelako, eta nabarmendu behar da euskal hiztunen profila zeharo aldatu delako. Lehen ez bezala, gaurko hiztun gehienek euskara etxetik kanpo jaso dute eta euskara nagusi ez den inguruetan bizi dira. Baina Ezkerraldea ez da Lea-Artibai, ezta Durangaldea ere, eta gauzak aldatu diren heinean, norabide berriak ere hartu beharko dira edo euskararen egoera okerragora joango da, hemen behintzat.

Aitzitik, aipu berezia emango diot talde honetako bik esaten dutenari, jarrera kritikoa daukatelako euskararen hizkuntza politikarekiko, eta interesgarria izango litzateke beren biografia linguistikoak ezagutzea, horrelako gorrotoa nondik datorren ezagutzeko eta oxigenatzeko. Esaten dutenez, euskararen erabilera urria da, euskarak euskaldunak ez direnak baztertzen dituelako edo ikastera behartuta egotearren nazka hartzen zaiolako euskarari.

BAI ERANTZUNAK, % 66,9:

"Duela urte asko euskara ez zen ezta hitz egiten ere, soilik gutxi batzuek zekiten, eta gaur egun aurrerapen asko egin ditugu sail horretan."

"Hobeia izan daiteke, baina nik nabaritzen dut kalean jende gehiagok hitz egiten duela euskeraz, eta euskara bultzatzeko ekitaldietan jende askok parte hartzen duela (adibidez euskaraldian edo korrikan)"

"Gero eta jende gehiago hitz egiten duelako, ni ez bezala"

"Jende askok hitz egiten duelako"

"Gero eta gehiago entzuten dut euskara kalean."

"Ez da egoera oso txarra baina asko hobetu daiteke gaur egungo gazteek euskara gehiago erabiltzen badute"

"Bai, baina nahiko nuke edatuagoa eta erabiliagoa izatea"

"Bai, baina hobeagoa izan liteke"

"Euskadin nahiko ospetsua da"

"Nik uste egoera asko hobetu dela beste urte batzuei begira"

"Nire ustez euskararen egoera ona da, jende pila dakielako euskara. Beste gauza bat da hitz egitea baina baditut lagunak Euskal Herritik kanpo euskaraz hitz egiten dutela dakiten lagunekin."

"Euskararen egoerarik onena ez da. Baina egia esanda gero eta jende gehiago entzuten duzu kaletik euskaraz hitz egiten"

"NAHIKO JENDE IKASTEN ARI DA GAUR EGUN."

"Hamaika ekintza egiten direlako"

"Euskara pentsatzen duguna baino jende gehiagok hitz egiten duelako"

"Gaur egun Euskal Herrian asko hitz egiten delako eta EHTik kanpo pertsona askok hitz egiten dutelako."

"Gaur egun jende gehiagok ikasten eta hitz egiten duelako euskaraz."

"Ezagutzen ditudan pertsona askok lehen ez zuten euskaraz hitz egiten eta orain bai, beraz jende gehiago horrela aldatu da"

"Lehen ez zuten euskaraz ikasten, orain bai eta hori abantaila bat da."

"Jende askok hitz egiten duelako"

"Gero eta garrantzi gehiago ematen diogu, eta hori hizkuntzarako ona dela uste dut."

"Uste dut gero eta gehiago hitz egin behar dugula euskaraz"

"Egun, euskararen egoera nahiko ona da, gero eta gehiago entzuten da euskara kaleetan."

"Gero eta jende gehiagok hitz egiten du euskaraz"

"Gero eta gehiagok erabiltzen dugulako."

EZ ERANTZUNAK, % 33,1:

"Euskal Herrian bizi izanda, ez zaiolako ematen behar duen indarra edo garrantzia"

"Jende askok ez duelako baloratzen hizkuntza hauen garrantzia"

"Ez dagoelako indartuta"

"Jende gutxik dakielako ondo erabiltzen"

"Zeren eta euskerak baztertuta uzten baititu pertsona batzuk"

"Jendea behartuta dagoenez euskera ikastera, azkenean batzuek nazka hartzen diote"

"Errepresio handia euki duelako eta horren ondorioz jendeak hitz egiteari utzi zion, eta berriro euskeraz aritzea zaila da"

"Duela 20 urte baino hobeto dago. Baina honek ez du esan nahi bere egoerarik onenean dagoenik."

"Ez, batez ere Bizkaian, euskera egitea besteekin zaia delako, eta jendeak egiten ez duelako."

“Jendeak ez duelako hori hitz egiteko ohiturarik”

“Gaur egun soilik euskaraz hitz egitea ezinezkoa da.”

“Gazteon artean gutxi hitz egiten da. Gu gara etorkizuna eta horrela jarraituz gero, galdu egingo da.”

“Hizkuntza galtzen ari da”

“Ia inork hitz egiten ez duelako.”

“Ez duelako jende askok hitz egiten”

“Gero eta jende gutxiagok hitz egiten duelako, eta horrela euskara galduko dugu”

“Lurraldearen arabera. Bizkaian nahiko txarto. Erabilera asko jaitsi delako.”

“Gero eta jende gutxiago mintzatzen delako euskaraz”

“Jendeari bost axola zaio gure hizkuntza. Gehiago erabili beharko genuke.”

“Ez da egunerokotasunean erabiltzen”

“Kalean ez delako asko berba egiten”

“Ez dago hiztun nahikorik”

“Oso gutxi entzuten da kaleetan, eta ikastoletan gero eta gutxiago”

“Jende askok ez du erabiltzen”

“Nahiz eta jende askok euskaraz egiten jakin, ez dute egunerokoan erabiltzen.”

“Egunero jendea ez delako mintzatzen.”

“Gehienok badakigu euskaraz baina askok ez dute hitz egiten”

“Jende askok ez duelako euskaraz hitz egiten, hala ere, lehen baino gehiago mintzatzen da.”

“Jendeak klasetik edo lanetik kanpo euskaraz hitz egiteari uzten diolako”

“Jendeak euskera daki baina ez du hitz egiten”

“Jendea ez da saiatzen euskaraz hitz eiten. Leku askotan txikiagotzen ari da euskara hitz egiten dutenen kopurua. Gainera, gero eta garrantzitsuagoa denez Ingelesa ta beste atzerriko hizkuntzak hitz egitea, euskara alde batera utzi ta beste hizkuntzetan arreta ipintzen dabe.”

“Orain jendeak euskaraz ikasten du, baina gero lagunekin, kalean edo familiarekin gaztelainaz aritzen dira”

“Inork erabiltzen duelako”

“Cada vez se habla menos”

“Hobetu daitekeen arren, uste dut ez dagoela guztiz ahulduta eta esfortzu pixka bat eginda aise lortu daitekeela euskaraz harremanak eraikitzea.”

“Jendeak gero eta gutxiago hitz egiten duelako.”

“Ez dago oso zabalduta”

"Gero eta jende gutxiagok hitz egiten duelako."

"Gaur egun ez da euskara asko hitz egiten"

"Galtzen ari delako"

"Euskal Herriko leku askotan Euskara oso gutxi erabiltzen dugulako institututik kanpo."

"Gero eta jende gutxiagok erabiltzen du"

"Oso jende gutxi hitz egiten du euskaraz"

"Dakiguna hitz egiten ez dugulako"

"Pertsona gehiagok hitz egin beharko lukete euskera eskolatik kanpo, bestela galdu egingo da"

"Euskara erabilera gutxi da"

"Desagertzeko arriskuan dagoelako"

"Oso jende gutxi erabiltzen du"

"Euskaldun askori ez zaiolako euskara gustatzen eta ez delako praktikatzen kaletik"

"Gaur egun, gero eta euskara eskasago hitz egiten da, neure burua ere sartzen dut talde horretan."

"Ezkerraldean oso jende gutxi erabiltzen duelako"

"Gehiago erabili behar dugulako"

"Gazteok ez dugulako asko erabiltzen euskara"

"Gero eta gutxiago hitz egiten da"

"Gero eta gutxiago erabiltzen Ari delako"

"Gazteok ez ditugulako hitz egiten euskaraz"

"Euskal Herriko pertsona askok ez dakitelako hitz egiten"

"Gaur egun ez duelako inork ere hitz egiten."

"Jende gutxi hitz egiten duelako eta galdu egin ahal delako"

"Pertsona askok euskera ikasten dutelako baina ez dute erabiltzen."


"Oso gutxi hitz egiten delako"

"Gero eta jende gutxiagok hitz egiten du euskaraz."

4.7.12 Euskara desagertuko balitz nola sentituko zinateke?

Euskara desagertuko balitz, zelan sentituko zinateke?

120 erantzun



Aukera	%
Triste	75.8
Axolagabe	15
Etsita	2.5
Pozik	0.8
Oso pozik	0.8


Hemengo galderan emozioak ere araka ditzakegu, % 75,8 triste jarriko litzateke euskara galduko balitz, % 15 axolagabe, % 2,5 etsita zein pozik eta % 0,8 oso pozik jarriko litzateke. Nahiz eta kopuru txikia izan azkenengo hau, deigarria eta kezkagarria ere da euskara desagertzeak pozik edo oso pozik jartzea norbait, euskarekiko gorrotoa adierazten baitu. Horrez gain, hizkuntza galera eta pobrezia jatorri bereko ondorioak direlako ere kontuan hartzekoa da. Hau da, kontuan eduki behar dugu hizkuntzen galtze prozesua ez dela berez sortzen den zerbait; sarritan egoera ekonomiko eta sozial desorekatu baten isla da, hemen gertatu zena hain zuzen ere. Botere ekonomiko, politiko eta sozial handiagoa duen beste hizkuntza komunitate baten eraginez, askotan, botere gutxiago duen komunitateak utzi egiten dio bere hizkuntza hitz egiteari edo transmititzeari. (Belén Uranga eta Paul Bilbao¹²)

¹² Belén Uranga, Paul Bilbao, Soziolinguistika eskuliburua, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2010

4.7.13 Noren esku dago euskararen etorkizuna?

Noren esku dago euskararen etorkizuna?

120 respuestas




Aukera	%
Hiztunon esku	91.7
Politikarien esku	5
Legeriaren esku	2.5

Gehienek uste dute norberaren ardura dela euskarak bizirik jarraitzea, % 91,7k, hain zuzen ere. Batzuk ere politikarien esku dagoela jabetzen dira.

4.7.14 Zelan imajinatzen dituzu EHko hizkuntza ohitura gero batean?

Zelan imajinatzen dituzu EHko hizkuntza ohiturak gero batean?

119 respuestas



Honako honetan % 70,6k imajinatzen du gero bateko hizkuntza-ohiturak euskaraz arituko direla, gaztelaniaz baino. Euskaraz imajinatzen dituztenak ilusioz eta itxaropenez beteta daude. Gaztelaniaz imajinatzen dituztenak, ostera, Ezkerraldeko egoera zein den ikusita, praktikoagoak dira.

Arrazoitu

- **EUSKARAZ, % 70,6:**

“Horrela pentsatzen dudalako”

“Beste erakunde batzuekin hitz egiteko erabilgarriagoa delako”

“Azken finean hemen bizi den jende askorentzak ama-hizkuntza delako”

“Oihuturak euskaldunok egiten ditugulako eta euskaraz egiten dugulako”

“Gero eta jende gehiago konturatzen delako euskera desagertzeko zorian dagoela”

“Nik uste dudalako jendeak ez diola utziko hitz egiteari”

“Zeren eta Euskararen erabilpena gero eta gehiago handitzen delako. Azkenean, gaur egungo ohiturekin jarraituko dugu gero batean.”

“Gero eta jende gehiago konturatzen ari delako euskara desagertzeko arriskuan dagoela”

“EH ohiturak hemengoak direlako eta EH osoan jende asko erabiltzen duelako euskara egun guztietan.”

“Hizkuntza berezi bat badugu, zergatik ez erabili?”

“Euskera ez da orain arte desagertu, pues ez da gero batean ere galduko”

“Gero eta jende gehiagok hitz egiten duelako”

“Gure hizkuntza delako eta euskal ohituren hizkuntza”

“Hau gure ardura izango da zeren eta gazteok ez badugu euskara erabiltzen, denboraren poderioz galdu egingo baita.”

“Aurrean esan dudanez, kaletik joatean jendea entzuten dut euskeraz hitz egiten ia egunero, eta duela urte batzuk oso arraroa zen. Pertsona batzuk euskarari buruz ez dute ezer jakin nahi arren, uste dut denbora pasa ahala murriztuz joango direla.”

“Ohiturak euskaraz izango dira euskararen egoera gero eta hobeagoa delako”

“Gero eta jende gehiago animatzen da euskara ikastera, oso hizkuntza polita delako eta nire ustez gero batean ia guztiok euskaraz hitz egikgo dugula, edo euskara jakin behintzat.”

“Uste dudalako guztiok gure partez jartzen badugu, lortuko dugula Euskara askoz gehiago hitz egitea leku guztietan.”

“Euskal Herriko hizkuntza euskara delako”

“Gazteok kontzientzia hartzen ari garelako”

“Nire inguruko harremanak ikusita uste dudalako aurrera egin dezakela.”

“Euskal Herrian sortu den hizkuntza bat delako eta jarraitu behar dela praktikatzen”

“Espero dudalako jendeak egunero erabiltzea”

“Gero eta gehiago sustatzen baita”

“Jendeak euskara gehiago egitea sustatu behar du.”

“Zenbat eta jende gehiagok euskaraz egin orduan eta jende gehiagorekin euskaraz hitz egiteko aukera izango dugu.”

“Gaur egun jende gehiagok ikasten duelako euskara”

“Gero eta jende gehiagok euskara dakielako.”

“Denborarekin normalizatuko da egoera”

“Egoera larrian egon arren badakit zailtasun hau igaro dezakegula”

“Euskaldunok euskaraz hitz egiten jarraitzen badugu euskarari ohituko gara”

“Gehiago erabiltzen delako”

“Nahiz eta lehen Bizkaiko kasua kontatu dizuedan, orokorrean bide onean doalako.”

“Gure ama-hizkuntza da”

“Gero eta pertsona gehiagok euskaraz hitz egiten dutelako. Kontzeptu asko oso erabiliak dira euskara ez dakitenen artean ere (adibidez, "adiós" ordez agur erabiltzea). Eta denborak aurrera egin ahala, gero eta gehiago izango dira”

“Gero eta jende gehiago hitz egingo du euskaraz, edo gutxienez jakingo du, baina gehienak gaztelainaz jarraituko dira mintzatzen.”

“Espero dot jendea Euskararen garrantziaz jabe dadin ta Euskara haien ama hizkuntza bezala erabiltzen hastea. Hori ikasteko gogoak izatea eta ondorioz, euskara askoz gehiau zabaltzea.”

“Euskal Herrian euskara lortzen dabil gero eta garrantzia gehiago”

“Gero eta gehiago sustatzen saiatzen ari garelako gutxi-gutxi”

“Etorkizunean gero eta gehiago hitz egingo delako”

“Lurralde guztietan hori delako hizkuntza komuna.”

“Gaur egun jende askok hitz egiten duelako euskara eta etorkizunean jende gehiago erabiliko duelako.”

“Jende guztiak ez du jakingo euskaraz hitz egiten, baina espero dut euskara gehiago hitz egitea.”

JARRERA NEUTROAK

“Biek ahal direlako hitz egin.”

“Nire ustez, berdin jarraituko da, bai euskaraz bai gaztelaniaz hitz egingo dugu”

● GAZTELANIAZ, % 32,8:

“Gaur egungo belaunaldiak ez du euskaraz hitz egiten.”

“Hurrengo ondorengoek euskara gutxiago erabilko dute.”

“Gero eta gutxiago erabiltzen delako”

“Oso zaila delako kostumbreak aldatzea”

“Gaztelania gero eta gehiago hitz egiten delako eta euskera gero eta gutxiago”

“Euskaraz nahi izango nuke baina gaztelaniaz izango direla uste dut”

“Gero eta gutxiago erabiltzen da euskara”

“Euskara desagertu ahal delako”

“Euskara gutxi mintzatzen delako”

“Como he dicho, cada vez se habla menos”

“Gehienok gaztelaniaz egiten dugulako.”

“Gazteok ez dugulako euskara erabiltzen gure egunean zehar”

“Gaur egun gero eta pertsona gutxiagok ikasten dute edo ateratzen dute euskera, gainera euskara bakarrik hitz egiten da Euskal Herrian ,hortik kanpo inon ez ,gaztelania berriz edozein lekutan.”

“Lehen esan dudana bezala jendeak orain ez du ia ezer euskara erabiltzen”

“Gero Eta jende gutxiagok hitz egiten duelako”

“Orain momentuan euskaraz egiten ez badugu etorkizunean orain daukagun guztia erdaraz gogoratuko da.”


“Gaztelaniaz euskaraz baino askoz gehiago hitz egiten delako.”

“Bietan, baino batez ere gaztelaniaz zeren eta orain Euskal Herrian Euskera bultzatzen ez dugulako.”

4.7.15 Argazki sorta

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?


120 respuestas



Itsasoa EHko historiarekin eta kulturarekin lotuta dago, eta horrek isladatzen du euskara mundu honetan errotuta dagoela, tradizioarekin eta iraganarekin lotuta.

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?


121 respuestas



Nekazaritzarekin gauza bera gertatzen da, euskara ikuspegi zaharrari eta folklorikoari lotuta egonik.

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?


121 respuestas



Garai berrietako kulturegintzan, ordea, besteko protagonismo daukate hizkuntza biek.

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?


116 respuestas



Maitasunak giza-harremanekin zerikusi handia dauka eta arestian ikusi den moduan sare sozialak gaztelaniaz erabiltzen badituzte, beste motatako erlazioak ere gaztelaniaz irudikatzen dituzte.

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?


116 respuestas



Sukaldaritzako adibiderik garrantzitsuenak euskaldunak badira ere, sukaldaritzaren berriari buruz itaundu orduko, gaztelaniara jotzen dute gehien bat.

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?



116 respuestas



Moda EHTik kanpo kokatzen dute guztiz, EHko modarik ez balego bezala.

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?


120 respuestas



Aretoko dantzetan ere joera bera errepikatzen da.

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?


119 respuestas



Medikuntzarekin dauzkaten harremanak erdaraz dauzkaten seinale da.

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?

119 respuestas




Nahiz eta euskarak aurrerapauso itzela bat eman azken aldi honetan, esate baterako, zinemagintzan edo antzerkigintzan jasotako Goya sariei esker, lehentasuna ematen jarraitzen diote gaztelaniari. Harritzeko da, batez ere, eskoletan dauzkaten jardunaldi kultural guztiak kontuan hartuta.

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?




118 respuestas



Arlo zientifiko-teknikoan ere gaztelania nagusitzen da.

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?

117 respuestas



Argazki zerrenda honetan euskara nagusitzen da folklore edo tradizioarekin lotutakoetan soilik, hots, aspaldiko gauzeekin lotutakoetan. Ez dira konturatzen Ezkerraldeko kanpoko aretoko dantza, modeloen pasarela, maitasuna, zientzia lanbideak edo sukaldaritza euskararekin ere lotu dezakegula. Izan ere, adibide euskaldunak dira, Altxoko pasarela, Eneko Atxaren sukaldaritza, Sonakaykoen kontzertua, hau da, ijito euskaldunen kontzertuan...eta abar. Eta ez dira horretaz jabetzen, beren errealitatean gaztelania nagusitzen baita, noski. Beraz, zelan imajinatu maitasun-harremanik euskaraz? Ez daukate irudikatzerik, bizi ez dutelako. Lanbideetan ere gaztelania suertatzen da irabazle, pentsatzen dutelako hemendik kanpo lan horiek eskura ditzaketela euskara barik, beraz, zertarako desgastatu horretan, hemendik gertu gauza berbera egin badezakete, euskaraz baino askoz hobeto maneiatzen duten hizkuntzaz?

Lagunekiko jaiak edo sare-sozialetako harremanak ere gaztelaniaz eraikitzen dituzte hemengo hizkuntza-ohiturengatik, baina euskaraz egiteko kapaz izango lirateke, esate baterako, Ondarroara joango balira.

Kultura, oster, hizkuntza biekin lotzen dutela ikus dezakegu Guggenheim aragazkian.

Beste datu batzuk:

Euskaldunak sentitzen ez direnen artean % 0k egiten du euskaraz sare sozialetan, nahiz eta hauen % 8ak lagun euskaldunak dituen, erdaraz egiten du haiekin.

Bestaldekik, euskaldunak sentitzen direnen % 35ek egiten du euskaraz lagun euskaldunen batekin eta % 7k beti egiten du euskaraz sare sozialetan.

Euskalduna sentitzen ez den % 50ek uste du euskararen egoera ona dela. Euskalduna sentitzen den % 70ek uste du euskararen egoera ona dela.

Euskara desagertuko balitz, identitate euskalduna ez daukan % 28 triste egongo litzateke, eta identitate euskalduna daukan gainerako % 80a triste legoke... Beraz, norekin egin beharko genuke lan handiagoa?

Azken argazkia, lagunekin eta aisialdiarekin zerikusia daukana, euskalduna sentitzen ez den % 100ek gaztelaniarekin lotzen du, eta euskaldunen gainerako % 21ak, ostera, euskararekin.

Euskalduna sentitzen ez den % 50ek euskaraz ikasten du horrela egitera behartuta dagoelako. Eta horrela pentsatzen duen euskaldunen ehunekoa % 10 baino txikiagoa da.

5. ONDORIOAK

Jarrerak ikasten ditugu, eta hiztunok gara komunikazio-egoerei aurre egiten diegunok hizkuntza bat edo beste bat aukeratuz, gure aukera baita. Hala eta guztiz ere, euskaldunok gure lanaz gain, aparteko lan bat daukagulakoan nago, hau da, euskalduna izatea ez dela kontu erraza, gure ardurez gain, euskalduna izateko erantzukizuna ere aldarrikatu eta frogatu beharra baitauekagu. Beraz, laguntza behar dugu, batez ere Ezkerraldean.

Hemengo 16 urteko gazte lagin honek zintzo bete du galdetegia, eta gazteak badira ere, jaio direnetik ezagutzen duten errealitatea argi eta garbi dakite interpretatzen. Gazteek ez ei daukate kritikotasun gaitasunik, eta horrelakoak uste dituztenak oker daude, guztiz. Izan ere, erantzunak arretaz irakurtzen baditugu, hizkuntza egoera bideratzen hasi ahal izateko gakoak ematen dizkigute:

HERRI-ADMINISTRATIOAK

- Ezkerraldeko errealitatea ez dago euskararekin lotuta, eta ezagun dute euskarak bizirik jarraitzea **hiztunon ardura** dena. Ez daukate zertan izan Hizkuntza Plangintza teknikariak izan, hori jakiteko, eta erantzukizun hori bereganatzen dute.

Hala ere, **ez dago indartuta, ezta normalizatuta ere** hainbat arlotan, adibidez, udaletxeetako administrazioetatik. Haiek beraiek konturatzen dira horretaz, kalean ez dagoela euskaraz bizi izaterik, eta hortik letorkiekeen laguntza aldarrikatzen dute. Ezkerraldeko egunerokotasunean euskara atzeratuta dago, ezin dugu geure burua engainatu eta euskararen ezagutza bermatuta dagoelakoak ez du bermatzen bere erabilera, ezta gaitasuna ere, gero eta baztertuago baitago hainbat espaziotan. Jarduera eta ekitaldi franko egiten dira euskaraz, aspaldi egiten zirenenen aldean ulerturik, baina ez da nahikoa, gaztelaniaz egiten direnek askoz gehiago izaten jarraitzen dute -eta. Izan ere,

hemen egon zen paisaia linguistikoa zein diskurtsoa berreskuratu beharrean, ahaztu egiten dituzte hemengo politikariek, Sestaon, adibidez, ez dagoelako euskaraz dagoen herri-aldizkaririk, edo hemengo politikariek erdara hutsean egiten dituztelako bere diskurtsoak. Hemengo udaletxean sartu orduko jasotzen den abegia erdara hutsean ere izaten da beti.

Erronka hauei aurre egiteko behar diren neurriei estaldura juridiko-politikoak emango dien akordio sendo bat eta akordio hori garatzeko beharrezkoa da hezkuntza lege berri bat. Izan ere, **Miren Dobaranek** (Eusko Jaurlaritza) herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko dekretu berriaren nondik norakoak azaldu ditu Bilbon egin den Euskaltzaindiaren egoitzan, euskara biziberritzeko bide berriak delako emanaldian zehar. Ildo honetan, **Joseba Lozanok** (EJ) ere esan zuen erakundeen barruan txertatu behar direla euskara plangintzak, euskara teknikarien esku bakarrik utzi barik.

- Hemengo historiaren ondorioak eta arazoak gorabehera, **identitate euskalduna** dago, eta gehienak harro daude euskaldunak izateaz edo hemen jaiotzeari esker, gure kultura ezagutzeko izan duten aukera eskertzen dute, ezagutu, baloratu eta berenganatu egin dute -eta. Jarrera izanarazle eta integratzaile honek identitate euskalduna eta elebiduna sumatzen du, eta aldi berean, itxaropena adierazten du, askok erantzuten dutenez, euskara besteengandik bereizten gaituena delako, edo Euskal Herriko hizkuntza euskara baita.

- **Alde soziala** landu behar da, ikasitakoa gizarteratuz zein sentimendu eta emozioetan murgilduz. Batzuek adierazi duten gorrotoa oxigenatzeko bide bakarra beren **biografia linguistikoak** lantzea da, euskara beste alde batetik ikustarazteko, definitzen gaituzten hizkuntza eta kultura irekiak direla erakutsiz. Izan ere, ikasle guztiak euskaldunak diren arren, horietako batek gaztelania hutsean erantzun du galdetegi osoan zehar, eta horrela adieraztea zilegia den ikuspuntutik onartzeak ez digu ekarpen onik egingo, ezta egoera hori konpondu ere. **Estibaliz Alkortaren** esanetan, (EJ), Euskaraldia eta EUSLE direlako prozesu sizioinguistikoek euskararen inguruko diskurtsoa baikorra hedatzen laguntzen digute

Hermes aldizkariko zuzendari **José Antonio Rodríguez Ranzek** aitortu du aurrera egin dugula eta aurrera goazela, “baina hori ez dela nahikoa”. Rodríguez Ranzen aburuz, “globalizazioa dugu mehatxu, hizkuntz nagusien hegemoniaren eraginez, baina, aldi berean, aukera da, aniztasuna delako mundu global horren berariazko osagarria”.

“Bergia hiztun pasiboetan jarri behar dugu, hizkuntza ohituren aldaketan, teknologia berrietan, gazteetan, prestigioan, berdintasunean eta hizkuntzen arteko elkarbizitzan. Eta horretarako bidea elkarlana da” adierazi du Hermes aldizkariako zuzendariak.

Amaitzeko, Rodriguez Ranzek nabarmendu du ale berezi honetan ageri diren 35 ikuspegiak, hein handian, “osagarriak direla, apenas kontrajarriak. Erronka nagusia dugu bidea elkarrekin egitea, nor bere erritmoan, batzuk mantsoago eta beste batzuk azkarrago”, baina elkarrekin, azken batean.

HEZKUNTZA:

- Ildo honetatik, batzuek ere aitortzen dute pertsona gutxiak dakitela ondo egiten euskaraz. Gaur egun bi faktore arriskutsuak ditugu euskalduntze prozesuak aurrera egin dezan gure hezkuntza sisteman... ikasleen euskara ezagutza eta kalitate maila, eta gero haur gehiago ari direla iristen gure ikastetxeetara matrikulazio garaitik kanpo, atzerritar jatorrikoak. Neurriak hartu ezean, urteetan atzera egin genezake euskalduntze prozesuan. Ezinbestekoa dugu baliabide gehiago edukitzea, erronken arabera baliabideak edukitzea gure hezkuntza sistemak, bata zein bestea herri apustu baitira eta hezkuntza eragileen elkarlana. **Bingen Zupiriaren** esanetan (Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua), “erronka berriei heldu behar diegu eta gogor lan egin beharko dugu, hizkuntza biziberritzen berriro asmatuko badugu”. “Euskararen jakintza areagotzea, erabilera bultzatzea, lan munduan urratsak egitea, familia bidezko transmisioa bermatzea, euskararen inguruan dagoen atxikimendua zaintzea... Erronka horiei eta beste hamaikari heldu beharko diegu epe laburrean” azpimarratu du.

Ezagutza arlo akademikora mugatzen da eta ez dute uste ezagutza maila handia denik, guztiz kontrakoa baizik, jakin badakitelako ikasgelatik kanpoko espazioetan euskaraz egin behar izanez gero, ez direla gaztelaniaz bezain eroso sentitzen, ez daukatelako erraztasunik edo naturaltasunik. Beraz, ezagutza mailak eta kolean euskaraz bizi izaten jarraitzeko tresnarik ezak **erabilera** mugatzen diete. Hemengo irakasleriak formakuntza saioak jaso litzake beren ezagutza kalitatea ez ahazteko, azken finean, hemengo hizkuntza ereduak dira. Eta prestakuntza hauek urrun egon beharko lirатеke EGA bezalako prestakuntzatik, zentzu ludikoa eta erakargarria izanik, helduak nahiz gazteak limurtzeko. Izan ere, askok ere kritikatzten dute euskara ikasi beharra dagoela, eta horrek etxetik eskuratu duten ikuspegia ere islatzen du. Euskara ezin da zama izan, ezta zigorra ere, ikuspegi hori behingoz aldatzeko. Eta

xedea ez da jendea hizkuntzalari bihurtzea, baizik eta euskaraz bizi ahal izateko hizkuntza tresnak ematea.

Jon Sarasuak (Mondragon Unibertsitatea) dioenez, ez dakigu nora goazen euskalgintzan, gazteek ere ez dakite eta D ereduak ez du funtzionatzen... Agian E eredu batez pentsatzen hasi behar dugu.

Hau hemengo D ereduko ikasleek esaten dutenarekin lotzen badugu, badirudi horrela dela, D ereduak ez duela funtzionatzen, ezagutza eta erabilera eza baitago institutueta bertan.

- **Pentsamenduaren errutinak eta ahozkotasuna** garatzea, **adimen emozionala** edo inteligentzia emozionalaren bidez, norberaren pentsamendu kritiko eta sortzailea garatzeko.

Gure sentimenduak eta besteenak ezagutzeko, motibatze eta harremanak era egoki batean maneiatzeko gaitasuna da. Beste definizio baten arabera, “adimen emozionala sentimenduen, nortasunaren eta moralarekiko lotura bihurtzen da”. Kontzeptua XX. mendean lantzen hasi zen, eta Daniel Goleman izeneko psikologoak ezagutarazi zigun.

Lawler-ek emozioak egoera ebaluatzaileztat jotzen ditu eta positiboak edo negatiboak izan daitezke. Hauek laburrak izaten dira eta elementu fisiologiko, neurologiko eta kognitiboak dituzte.

Kontua da egoera zehatz bat gertatu aurreko egoera emozionalak pentsatzeko moduan nahiz interpretatzekoan eragiten duela. Egoera horretatik iristen garen ondorioek ere emozio bat sortzen dute gudan eta interpretazioaren arabera alda daiteke. Beraz, adimen emozionala norbera bere emozioez jabetzea da, horiek identifikatzea eta ulertzea; baita besteenez jabetu eta haiek identifikatzea ere.

Gure bizitza eta lana helmuga pertsonaletan (ametsak) oinarritzea da, nork bere burua motibatzea eta besteekin harreman emankorrak izatean datza (elkarbizitza).

Duela urte batzuk arte, pertsonaren adimenaz hitz egin denean, adimen koefizienteaz hitz egin denean, bi adimen mota hartu izan dira kontuan: hizkuntzarako adimena eta logika-matematikarako adimena. Beraz, orain gutxi arte, bi adimen mota horiek baino ez dira kontuan izan pertsonaren “intelligentzia” baloratzeko.

Gaur egun, ordea, azken teoria eta ikerketa guztiak kontuan izanda, Howard Gardner-en “Adimen Anitzen Teoria”¹³ batik bat, argi gelditu da pertsonak ez duela adimen mota bat bakarrik. Ikerketek frogatu dutenez, pertsonak beste adimen mota batzuk ere izan ditzake eta bere bizitzan zehar arrakasta izateko pertsonak trebetasun edo-eta adimen desberdin horiek behar-beharrezkoak ditu: Hizkuntzarako adimena, Logika-matematika adimena, Espazioan ikusteko

¹³ Gardner, Adimen anitzen teoria, 2003

adimena, Mugimendurako adimena, Norbere buruarekiko adimena, Pertsonen arteko adimena, Naturarako adimena, Haraindiko adimena

Ikuskera desberdin horren arabera, jada edozeinek onartzen du hainbat arlotan zailtasunak dituen ikasle bat beste arlo batzuetan trebea izan daitekeela eta, beraz, eskolak trebetasun edo gainerako adimen mota horiek antzeman eta horiek garatzen lagundu beharko liokeela ikasleari.

Norberaren emozioen ezagutza hobea lortzeak hizkuntzarekiko aurrerapauso garrantzitsua suposatuko luke hainbat zentzutan:

- Besteen emozioak identifikatzen.
- Norbere emozioak erregulatzeko gaitasuna garatzen.
- Emozio negatiboen ondorio kaltegarriari aurre hartzen.
- Emozio positiboak sorrarazteko gaitasuna garatzen.
- Norbere burua motibatze gaitasuna garatzen.
- Bizitzan jarrera baikorra izaten.
- Osasunez nahiz emozionalki gehiago zaintzen.
- Gure buruarekin ondo sentitzen: norbere ongizatea hobetzen.
- Besteekin elkarbizitzen eta komunikazio emankorrak egiten.
- Bizi dugun guztia ikasgai bihurtzen.
- Ilusioa eta itxaropena sorraraziko dizkiguten helmugak izaten .

“Lehen elea euskaraz beti, euskarak behar gaitu -eta”

Adolfo Arejita

“Txikiak ausarta, sortzailea eta engaiatua izan behar du. Txikiaren handitasuna beharrezkoa dugu balizko arriskuak aukera bilaka daitezen”

Juan Mari Atutxa (Sabino Arana Fundazioko lehendakaria)

“Agian, gure artean hain errotuta dagoen boluntarismoaren arriskua salatu beharrean gara, nahikunde hutsa helburuetara iristeko nahikoa balitz bezala... Nahiago nuke, ezer egingo bada, beti beharrezkoak diren ametsak eta berotasun suharrak, lagun eta aitzindari, kalkulua egingo balute, eginahalean zehaztuz zeren bila gabiltzan, zein urratsetan lortuko dugun, eta nolako bitartekoak ditugun eskumenean orain zein etorkizunean”

Koldo Mitxelena

6. BIBLIOGRAFIA

- Jesús Tuson, Mal de llengues, Empuries, 1998
- Jorge Luis Tejedor, Toponimia de Sestao, Euskaltzaindia, 2016
- Nekane Larrañaga, Jarrerak eta jokabideak euskararen etorkizunari begira, 2000
- Martínez de Luna; Berriotxo: Etorkizuna aurreikusten, Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara. Lasarte-Oria, 2000
- Durante, Antropología lingüística, Madrid, 2000
- Mikel Zalbide, Normalización lingüística y escolaridad, Revista Internacional de Estudios Vascos, 1998
- Mikel Zalbide, Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa, Euskaltzaindia, 2010
- José María Sánchez Carrión, La nueva sociolingüística y la ecología de las lenguas, Cuadernos de sección, Hizkuntza eta literatura, 1985
- Kike Amonarriz, Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena: gazteak eta euskara mendearen hasieran. Ikastolen Elkartea: IX: Jardunaldi Pedagogikoak, 417-465 orriak, 2002.
- David Perkins, Educar para un mundo cambiante, Ediciones SM, 2017
- Belén Uranga, Paul Bilbao, Soziolingüística eskuliburua, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2010
- Belén Uranga, Hizkuntza-ekologia. Ekologia biologikoa eta hizkuntza-ekologiaren arteko joan-etorriak, 2011
- BAKER, Colin. 1992. *Attitudes an language*. Clevedon; Philadelphia; Adelaide: Multilingual Matters.
- COOPER, Robert L; FISHMAN, Joshua. 1974. "Language attittudes, 1". *International Journal of the Sociology of Language* 3.
- COOPER, Robert L. 1997. *La planificación lingüística y el cambio social*. Cambridge: Cambridge University Press.
- AMORRORTU, Estibaliz; ORTEGA, Ane; IDIAZABAL, Itziar; BARREÑA, Andoni, 2009. *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- GADNER, *Adimen anitzen teoria*, Chicago, 2003
- Jon Aizpurua; Euskararen erabilera eta erabileran eragiten duten faktore naguziak. 2018

I. ERANSKINA: GALDETEGIA

Ikerketa soziolinguistikoa

Ezkerraldeko gazteen hizkuntza-jarrerak

Euskalduna sentitzen zara?

☐ Bai

☐ Ez

Arrazoitu aurreko erantzuna

Tu respuesta

Zer hizkuntza gustatuko litzaizuke jakitea horretan bizitzeko?

☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz

☐ Otro: _____

Zein da zure ametssetako hizkuntza?

☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz

☐ Otro: _____

Geroari begira... zer hizkuntza uste duzu erabiliko duzula zure lanean?

☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz

☐ Otro: _____

Zer hizkuntza erabiltzen duzu sare sozialetan?

☐ Euskaraz

☐ Erdaraz

☐ Otro: _____

Sare sozialetan egin duzun azken idatzia zelan idatzi duzu?

☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz

☐ Otro: _____

Ba al daukazu euskaraz soilik berba egiten duzun lagunik?

☐ Bai

☐ Ez

Ba al daukazu gaztelaniaz soilik berba egiten duzun lagunik?

☐ Bai

☐ Ez

Ba al daukazu euskaraz zein gaztelaniaz berba egiten duzun lagunik?

☐ Bai

☐ Ez

Zergatik ikasten duzu euskaraz?

☐ Lana aurkitzeagatik

☐ Behartuta nagoelako

☐ Gure hizkuntza delako

☐ Otro: _____

Euskararen egoera ona dela uste duzu?

☐ Bai

☐ Ez

Euskara desagertuko balitz, zelan sentituko zinateke?

- ☐ Etsita
- ☐ Triste
- ☐ Axolagabe
- ☐ Pozik
- ☐ Oso pozik
- ☐ Erantzunik ez

Noren esku dago euskararen etorkizuna?

- ☐ Politikarien esku
- ☐ Legeriaren esku
- ☐ Hitzunon esku
- ☐ Erantzunik ez

Zelan imajinatzen dituzu EHko hizkuntza ohiturak gero batean?

- ☐ Euskaraz
- ☐ Gaztelaniaz

Arrazoitu aurreko erantzuna

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?



☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz

☐ Otro: _____

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?



☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz

☐ Otro: _____

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?



☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?



☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz

☐ Otro: _____

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?



☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?



☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz

☐ Otro: _____

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?



☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz

☐ Otro: _____

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?



☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz

☐ Otro: _____

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?



☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz

☐ Otro: _____

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?



☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz

☐ Otro: _____

Zer hizkuntzarekin lotzen dituzu ondorengo argazkiak?



☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz

☐ Otro: _____

II. ERANSKINA: Ikerketa soziolinguistikoaren erantzun oro

Erantzun guztiak hemen daude eskuragarri:

<https://docs.google.com/spreadsheets/d/e/2PACX-1vRON4huxlaiLTsNXMIc5G8tpw34CMLSP7fGtyE-UXWIOysccirXSRb3SEpqYsmmzy5wEI79YtfS7tNC/pubhtml?gid=1970729773&single=true>